

ttipi-ttapa

257. zenbakia • 1999ko uztailak 1 • XIX. urtea



3 Elkarriketa: Pablo DANBORIENA

Etxalartarra sortzez, okin ofizia Lesakan ikasia eta orain Arizkunen okindegia eta jabetxea jarri ditu. Horretaz gain, etxez etxe ogia ez ezik, periodikoa eta ardoa banatzen du.

4 Erreportaia: Bi astetik behin istripua izaten da Belatetik Oronozerako bidean

Istripu eta hildako aunitz izan dira bi kilometroko tarte horretan. Zozaia-Donetztebe tartea moldatu arte ez dirudi aferak soluzio errexa duenik.

29 Kirola: Baztan futbol taldea Hirugarren Mailara

Ligan bigarren izan ondotik, promozioan lortu du Baztango talde nagusiak duela bi urte galdutako mailara itzultzea.


Ale honekin batera Lesakako Sanferminak

7 TTUPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



PERURENA aita- semeak

Iraganeko eta etorkizuneko markak



Etxean gogokoa ez bazuten ere, gazte gazterik hasi zen Iñaki Perurena harri jasotzen. Urte dexente eman ditu errekorrak eta markak egiten eta oraindik orain erakustaldiak egiten ditu herriz herri. Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari emandako Urrezko Domina eskuratu du lan hori eskertuz. 42 urte beteak baditu ere, harriari lotuta segitzeko beste arrazoi bat badu orain. Inaxio semea. Hamabost urtetan marka ederrak egin ditu.

«Errekorrak lanaren ondorioa direla erakutsi nahi nioke semea-ari». Hori ikasten badu, etorkizuneko markak Inaxiok egingen ditu.

28

PITTI

MINIESKABAZIOAK



Mobila. 616 513 491 - DONEZTEBE

Osasungintzako Profesionalak

Jorge Sopena Colombera

**hortz
klinika**

☎ 948 630647
Itzea 1, 1. • BERA

**Begoña
Mitxelena
Sagastibeltza**

KIROMASAJISTA

Elizgibela, 6 • DONEZTEBE
☎ 948 45 07 43

**MAGNETISTA
NATUROPATA**

IKUSMENA BERRESKURATZEA
GIHARRE ARAZOAK

OPERAZIO ONDORIOETATIK
INDARTZEKO TRATAMENDUAK

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara, Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

☎ 943 62 30 55
San Marcial, 7-4. IRUN

BELARRA

Herbolarietarako • Jantzi-Itenda

☎ 948 510192 • Elbarren, 35 • LEITZA

Masaje Zentroa:



Masajeak
Akupuntura
Homeopatia
Naturopatia

Gorosabel 36 - I.D. • ☎ 943654255 • 943 671635 • TOLOSA

Jose Luis Bihotza
IRURITA RUBIO

HORTZ KLINIKA

DONEZTEBE

Rosa Seminarioa, 19
948 450 267

LEITZA

Manuel Lasarte, 7
948 610 713

LARUN

Hortz klinika

Guy RANDÉ Doktorea
ODONTOLOGOA

ORDUTEGIA

Astelehen, ortzegun eta larunbatetan,
arratsaldeko 3,30etatik 7,30etara.

San Esteban, 21 behea • ☎ 948 631 057 • BERA

DATUAK.....

❖ Etxalartarra sortzez, Lesakako Rekondotarrekin ikasi zuen okinaren ofizioa.

❖ Orain dela 12-13 urte bere okindegia jarri zuen Erratzun, eta geroztik Baztan puntatik puntara ibiltzen du ogia partitzen.

❖ Berrikiago, 4 urte bete dira egunotan, Arizkungo Ordoki auzoan okindegi berria eta jatetxea ideki zituen.

❖ Etxez etxe ogia partitzeaz gainera, ardoak eta periodikoak ere erematen ditu enkargua emanaz gero.

👉 **Pablo DANBORIENA** *Uxoa okindegi-jatetxeko nagusia*

“Ez dut erraxa ikusten Baztanen fabrika berriak jartzea”

OGIAK EZ EZIK MADALENAK ERE EGITEN DITUZUE?

Ez, orain ez. Lehen bolleriarako gauzak egiten genituen baina orain bakarrik ogiak. Buelta hartzeko kantidade haundiak saldu behar izaten dira, lana ere haundia dute, eta azkenean... pentsatu genuen bakarrik ogiekin segitzea. Bederen hamarhameka klase ogi egiten dugu egunero.

GEHIAGO, GUTIAGO, BERDINTSU... ALDAKETARIK SOMATU DUZU OGIAREN KONTSUMOAN?

Orain baino gehiago kontsumitzen zen aldia ezagutu dugu. Hasieran kasik bi panadero bertzerik ez ginen, eta orain, Elizondon konparazio batera, 6 panadero ibiltzen gara egunero: Elizondokoak bida, gu hiru, Mugairekoa lau eta Saldiasoko eta Zubietakoarekin sei.

ORDUAN, NEGOZIO HONEK BADU BERERIK?

Bueno, ez dakit. Behin hasita segitu behar, tira eta tira. Ogi diferente aunitz egiten da orain, eta jendeak denetatik kontsumitzen du. Gero, kontuan hartu behar da baserrietan betitik saltzen zela ogi aunitz, baina azken urteotan baserri aunitz hustu dira, eta hori izigarri sumatzen da.

► *“Baztan inguruan fabrika berririk jartzeko manierarik ez dut ikusten. Jende aunitz Iruñera joaten da konstrukzioean aritzeko, gazteak batez ere.”*



«Ogiarekin batera, ardua eta periodikoak ere partitzen ditugu etxez etxe».

OGIA ETXEKO ATERAINO ERAMATEAZ GAINERRA, BADAKIT GAUZA GEHIAGO ERE PARTITZEN DUZUELA

Bai, ardua eta periodikoak. Martxa hori hartu dugu eta jendeak estimatzen du serbizio hori ematea.

...ETA GERO OSTATUA ETA JATETXEA

Orain dela bi edo hiru urte hasi ginen eta lan

aunitzekin gabiltza azken aldiotan. Uda eta astesantutan, denbora ona egiten duenean, fuerte ibiltzen da jendea.

OKINDEGIA, OSTATUA, JATETXEA... NOLA IKUSTEN DUZU NEGOZIO BERRIENDAKO MARTXA?

Difizila. Gaur hasi behar banu ez nintzen hasiko! Egunero-egunero hamasei ordutik goiti zango gainean... fuerte egin behar da gero! Ez dakit, hagitz de- ziditua izan behar da, eta Baztan inguruan fabrika berririk jartzeko manierarik ere ez dut

erraxa ikusten. Hemen ondoan batzuk gasnak egiten-eta ongi ari dira, baina gainerakoan, jende aunitz Iruñera joaten da egunero konstrukzioean aritzeko, gazteak batez ere.

HURRENGO URTEOTAN HOBERA EGITEN OTE DU?

Ez dakit. Zerikusi haundia izanen du karretera berriak-eta nola egiten dituzten. Elizondoko bariantea, Otsondoko tunela... hoi-ek denak orain martxan bali- ra, akaso izanen zen industria tiki bat edo bertz!



BELATETIK ORONAZERA

Bi astetik behin istripu larri bat ikusten duen errepide zatia

Belateko gaina igarotzen duen errepidea arriskutsua dela ez da berria: bihurgune bihurriak, bista laburrak, behelainoa, ibilgailu haundien gibeletik joan beharra, kamioiak frenorik gabe gelditzean sortzen dituzten istripuak eta heriotzak... Belate eta Almandozko tunelak zabaldu zirenean arriskua murriztuko zela zirudien, baina biazera! Iruñetik Oronoz aldera, errepide berriaren ondotik, lehengo karretera zahar eta meharra topatzen dute ibilgailuek, botila-lepoa efektua eraginez. Ondorioz, istripuak eta hildakoak ez dira desagertu Nafarroako errepideetako puntu beltz honetan.

TESTUAK: AITOR AROZENA
ARGAZKIAK: ARTXIBOKOAK

Azkeneko istripu larria joan den astean izan zen. Astelehenean, ekainaren 21ean, Simon Wild eta Trevor Skelton britainiarrek gidatzen zuten autoaren kontrola galdu eta kamioi baten kontra jo zuten. Biak hil ziren eta kamioiaren gidaria arinki zauritua suertatu zen. Egia erran, ez zen Belateko ohiko istripua izan. Normalean, Belatetik Oronozera jausten diren kamioiak frenorik gabe gelditu eta kontrola galtzen dute. Joan den astelehenekoan, aldiz, Oronoztik Belate aldera ziho-

an autoak kontrola galdu eta joan zen kamioiaren kontra. Halere, alde batera edo bertzera, bistakoa da errepide zati honek duen arriskua.

Belate eta Almandozko tunelak zabaldu zirenetik urte terdi igaro denean, trafikoa ikaragarri haunditu da. Nafarroako Gobernuaren iturrien arabera, trafikoa %30 igo da egun hartatik honat. Bistan denez, denbora eta komodidade aldetik izugarri hobetu da tar-te hau, batez ere auto gidarientzat. Baina arriskua ez da desagertu. Maldak beheiti egiten du eta kamioi haundiek frenoari sakatuz jautsi behar dute Oronoz aldera. Florentino Goñi, Oronozko alkatea-

ren iduriz, «seinalizatu da goena baino malda haundia goa dagoela uste dut eta honelaxe jakinarazi nion Bide Zerbitzuko Zuzendari Nagusiari».

Zozaian, errepide bihurri eta estura itzultzen direnean hasten dira estuasunak, berriz ere. Oronozen, arrisku seinaleak eta semaforoak jarri zituzten, baina, Florentinoren ustez, «frenoak aitzinetik galitzen dituzte, Zozaia aldeko kurbetan. Beraz, istripuak lehenago suertatzen dira. Halere, Oronozen egoera aunitz hobetu da, ibilgailueak abiadura jausten dute eta ez da lehen bezala».

Zozaia-Donztebe tartea berritzean egoera moldatuko da

Istripuak bi astetik behin gertatzen omen dira eta adibide aunitz eman daitezke. Joan den urtean, adibidez, kamioi frantses batek Oronozko gasolindegia kontra jo eta hondatua utzizuen. Zorionez, ez zen hildakorik izan. Aurtan, otsailean, kamioi gidari bat hil zen auto baten kontra jo ondok. Istripura ailegatu ez diren eskapadak milaka izanen dira, seguraski. Zozaia eta Donztebe arteko errepide zati berria egiten denean arazoa moldatuxea geldituko dela iduri du, baina horrek ere luze joko du. Oraindik orain, proiektua onartu eta kontratua egiteko baimena eman du Nafarroako Gobernuak. «La-



Belate eta Almandozko tunelek aunitz arindu dute trafikoa, baina aldi berean ugaritu egin dute ibilgailuen joan-etorria...



Baina lur-erorien ondorioz bi aldiz itxi dituzte dagoeneko eta uztailearen bigarren hamabostaldian berriro itxiko dituzte moldaketak egiteko.


nak kontratatu eta hasi orduko iraila izanen da guttienez, eta gero bertze urte pare bat joanen dira akitu arte. Edozein modutan, oraindik zer-

bait larria gertatu behar dela uste dut, estadistikak hamabortz egunetik istripu bat gertatzen dela erraten baitu» dio Florentino Goñik. Hale-

re, zati berria egin ondok ere, garrantzi berezia ematen dio Oronozko alkateak, errepide bazterrean, kamioiak gelditzeko eginak dauden pistei. «Orain arte, harri xeheakin eginak ziren eta bustiz gero, bidea bezala gelditzen ziren eta kamioiak aitzina segitzen zuen. Orain bat moldatu dute, baina beheitiagobertze bat egitea komeni da».

Belateko tunela hirugarren aldiz itxiko dute uztailean

Moldatu beharreko errepide zatiak ez ezik, dagoeneko moldatua dagoenak ere hainbat arazo sortu ditu. Lur-erorien ondorioz bi aldiz itxi dute 1997ko azaroaren 28an ofizialki zabaldu zen Belateko tunela. Lehenbizi, joan den urteko uztailean eta azkenekoa aurtan, maiatzaren 28an, aste pare batez. Uztailearen bigarren erdialdean berriro itxiko omen dute moldaketak egiteko. Florentinok dioenez, gainera, oraingoan luze emanen du itxirik. «Bigarren karrila eginen dute Belateko tuneletik Almandozkora. Lehenezin aitzindu, eta kotxeren bat kamioi baten gibelatik joan eta bertze bat frenorikgabe etortzen bazazu ondok, ikusi zer pasatzen den. Ehun milioi pezeta inguruko obra eginen dute. Nik uste sorpresaaren bat izanen dugula eta ez dela hamabortz egunerako izanen, franko luzea izanen da. Bistan da arazoren bat badela eta hori moldatu arte».



Florentino GOÑI Oronozko alkatea

«Bat moldatu dute, baina kamioiak gelditzeko bertze bi pista kondizioetan ez daudela uste dut»

Belatetik beheiti kamioiak gelditzeko dauden pistei inportantzi handia ematen diezu. Zergatik?

Xolborron dagoen frenatzeko pista moldatzea aspaldi eskatua nuen. Nere ustez ez zegoen kondizionetan eta bi hilabetez erreklamatzan ari-

tu nintzen. Bide Zerbitzutik, berriz, berria zela eta ongi zegoela zioten. Duela bi hilabete Valentziako kamioi bat bertan sartu, ez zen gelditu eta beheiti joan zen. Orduan, norbait hiltzen bazen Nafarroako Gobernuaren zela arduraduna erran nien eta serio xamar hartu zuten. Larunbat goizean akitu zuen lana Mariezkurren. Igande arratsen kamioilari batek ez zuen frenatzen ahal eta hantxe sartu zen. Han gelditu ez baliz

dena aitzinetik eramane zuela erran zuen gero prentsan. **Bat moldatua, baina bertze biak zein egoeratan daude?** Nire idurirako goitiago dauden bertze pista ere ez daude kondizioetan. Nafarroako Gobernuak egon dira begiratzen eta uste dut mugimendua badela. Beheitixeago frenatzeko bertze pista bat egitea ere komeni da. **Tarte hori moldatzeak soluzionatuko du arazoa?** Egoera hobetuko da, dui-

kabe. Halere, lehenago egin behar zela uste dut. Zozaia eta Donztebe arteko bidea segidoan egin ez dutenez, hor sortu dira arazoak. Zazpi-zortzi hildako izan dira eta bertze hainbat zauritu. Mugairitik goitiko bi kilometrotan, ezker-eskuin ez dago txapa, gurpilak eta markatutako zuhaitzak bertzerik. Tarte hori beldurrez egiten du jendeak, edozein momentutan kamioia gainera etorriko zaiola uste baitu, arrazoiarekin gainera.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Legea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irijoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak:

Joseba Azpiroz, Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Maione Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu,

Franc Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Martine Goieixe, Frederick Berruet,

Elixabet Turria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea, Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea, Belarra...

Primategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza,

Goi-tueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubieta Sarako udalak,

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.000 Pta.

Iparraldeko Euskal Herria ... 140 Libera

Europa ... 3.500 Pta.

Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

IRAKURLEAK MINTZO

Hauteskundeei buruzko informazioaren zuzenketak

Aitzineko alean udal, Nafarroako Parlamentuko eta Europar Parlamentuko hauteskundeei buruzko informazioa bildu genuen. Halako zerbaki *saltsaren* barrenean, akats bat edo berte joan zitzaigun ustekabean. Hona hemen kozkorrenak:

Areson, Nafarroako Parlamentuko datuetan Europako zutabea errepikatu genuen. Honela, Nafarroako Parlamentuko botuak honako hauek dira Areson: CDN 67, EA-EAJ 25, EH 88, PSN 6 eta UPN 36.

Bertizaranan, Nafarroako Parlamentuko datuetan, Legasako botuak falta zirenean bildutako botuak argitaratu genuen. Botu guzirik zuzenrik honela gelditu da: CDN 31, EA-EAJ 134, EH 88, PSN 19 eta UPN 110.

Leitzan, Nafarroako Parlamentuko datuetan, UPNrenak ziren ehun botu eman genizkion EA-EAJ-ri. Honela, EA-EAJk 433 botu ditu eta UPNk 371.

Lesakan, Nafarroako Parlamentuko botuetan, UPNk 284 botu lortu ditu eta ez 95, guk agertu bezala (xuri eta balio gabeko botuen kopurua zen hori, Lesakan).

Urrotzen, Nafarroako Parlamentuko botuetan, 19 botu lortu zituen EA-EAJk eta ez 9, guk agertu bezala. Bakoitzari berea.

TTIPI-TTAPA



Berako herriari eskerrak emanaz:

Berako EAJ-PNVk botoa eman diguten pertsoneri eskerrak eman nahi dizkie, 16 urteren ondotik Berako Udalean sartzeko aukera eman digutelako.

Gure bi zinegotziak herriko jendearen alde egonen dira beti eta proiektuaren gainerako kideek arlo desberdinetan lanean segitzeko konpromezua hartzen dugu (kultura, kirola, etab.). Lerro hauetatik Berako jendea gonbidatu nahi dugu gure proiektuan parte hartzera, bakoitzak nahi duen konpromezu maila hartuz. Beran gauza aunitz egin daiteke eta lan hori bertzeekin partitu nahi dugu. Talde irekia gara, anitza, partehartzailea, eta kide guzirik dute garrantzi berdina. Gure ateak ideiak daude eta Beraren alde elkarlanean aritzeko gonbitea egingen dizuegu. Mila esker.

BERAKO EAJ-PNV



Kaxerna Aisialdi Taldeari:

Uztailerako antolatu dituzuen Udalekuetan apuntatu ditugun haur batzuen gurasoak gara eta idazki honekin eskerrak eman nahi dizkizuegu:

- Eskerrak zuen lana, denbora eta ilusioak gure umetaren emateagatik.

- Eskerrak zuen helburuen artean herri hune hainbertze behar duen bat izateagatik: Berako haur guzirik erlaziozatzeko okasioak eskaintzea (Musika eskola, futbola eta dantzak ez dira nahiko).

- Eskerrak zuen lana ahal bezain ongi betetzen saiatzeagatik (hankasartze batzuek izan dituzue, nork ez?, baina aipatu ondotik onartu eta moldatzeko prest agertu zarete.).

- Eskerrak aurten gertatu denarekin ez desanimatzeagatik (errexena ekintza bertan behera uztea izan zen bainan aurrera jarraitzea aukeratu duzue eta horri esker gure umeak zuzen polit bat pasatuko dute, dudarik gabe).

Holako ekintzak behar-beharrezkoak ikusten ditugu gure umeentzat. Animo eta heldu den urtean berriz ere zuekin kontatzea espero dugu.

GURASO TALDE BAT



Kontzientzia eza:

Eskutitz honen bidez abertzale batzuek abertzale-tasunari buruz duten irudia kritikatu nahi nuke. Abertzale askoren artean ez dago euskal kontzientziarik. Euren burua abertzaletzat duten batzuek ez dute Euskal Herria euskararekin lotu auzkusten. Ez dakit sektore horrek zer uste duen abertzale-tasunari buruz, baina Euskal Herria, hitzak erraten duen bezala, euskararen herria da. Nik zentzu honetan errango nuke ez dagoela kontzientzia arrastorik ere. Xalbador zenaren euskarari buruzko bibertsohoiekin zer pentsa ematen du gure kontzientzia ezak:

*Lehen sartu zitzaizun
ezpata zorrotza
zure etxe nagusi
jartzean arrotza
halare ez zitzaizun
gelditu bihotza
etxearen eskutik
duzu heriotza.*

*Hilobi hontan noizbait
norbait badabila
zure izatearen
arrastoen bila
lurpetik entzunen du
deiarar haundi(y)a
hemen dago ama bat
bere haurrek hila.*

LESAKAKO J.L



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziralelan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

ARGAZKIAK



DONEZTEBE • ELIZONDO
Tfnoak.: 948 58 01 55
948 45 08 25

▶ %10 merkeago
argazkiak
errebelatzea

LENTZERIA

Deñe

Behoko Plaza • LESAKA
Tfnoa.: 948 62 75 14

▶ %10 merkeago
lentzeriako
artikuluetan

PENTSUAK



**MENDAUR
PENTSUAK**

Aparan • DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 18 45

▶ %5 merkeago
zakur, katu...
pentsuak

ZAPATAK

ALDI-ROZAS

Knatttonberri • BERA
Tfnoa.: 948 63 06 80

▶ %10 merkeago
oinetakoetan



TTIPI TXARTELArekin
beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago
irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

948 63 11 88

**Etxalarko Bentako
afaria**ren irabazlea:

Maria Dolores ALBIZU (Lesaka)

AMEZTIA

HOSTAL, JATETXE, OSTATUA

Doneztebeko **AMEZTIA** hostel-jatetxe-ostatuak bi
lagunendako bazkaria, afaria edo gaua pasatzeko
aukera ematen du TTIPI TXARTELA dutenen artean
zozketatzeko.



**2 lagunendako bazkaria, afaria
edo hostalean gau bat,**

zozketatuko da TTIPI TXARTELA dutenen artean. Zozketan parte hartzeko,
deitu uztailaren 7a baino lehen 948 63 11 88ra.

LIBURUAK

LEGARBA

**LIBURUAK
PAPERTEGIA
FOTOKOPIAK**

Albistur, 9-11 • LESAKA
Tfnoa.: 948 45 03 33

▶ %10 merkeago
Liburu eta paper-
tegia 1.000 Ptatik.
goitiko erosketetan

**NAFAR
PRESS**

**LIBURUAK • PRENTSA
ESKOLA MATERIALAK**

Jaime Urrutia, 43
ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 09 02

▶ %10 merkeago
Liburu eta eskola
materialetan

✎ Isabel ELIZALDE *Zubieta*

Axura: neronek sortutako enpresa baten historia



Ekainaren lehenean eman nion hasiera proiektu honeri.

Enpresaren helburua zonaldean jardunaldiak, kongresoak, ikastaroak edo gisakoak antolatzeko da.

Joan den urtean hasi nintzen lan batzuegiten. Lagun batekin, Urdazubin, antolatua genuen "Urdazubiko lehengo zeharkako xirula ikasturtea", eta azkeneko egunetan bi kontzertu herriko elizan.

Bertzalde, Aiansoroko Ixabel eta Anak deitu ninduten beurekin antolatzeko abendurako bertze jardunaldi batzuk, Iruñean. "Ingurugiko hezkuntzako hirugarren jardunaldiak".

Bainan, honat ailegatzeko bide luzea egina dut. Badira hiru urte hasi nintzela pentsatzen zer bait egin behar nuela nere lanpostua sortu eta hemen gelditzea, Zubietan. Ikasketak akitu nituen ez geroztik beti lanean aritu naiz: zerbitzari, gidari, eta azkenean zazpi urte garapen agente bezala. Bainan alde batekin ez nuen nere burua ikusten betiko lanpostuetan eta bertze aldetik ez dago hainbertze aukerarik.

Hori dela eta, Cederna-Garalar Elkarteak, *Remote* delako proiektua martxan jarri zuen eta hor ikusi nuen izugarritzko aukera.

Eta pentsatu nuen: zer dakit egiten? Ze merkatu ezagutzen ditut? Eta horrela oharu nintzen hainbertze jardunaldietan egondua nintzela

eta baita antolatu ere, eta nahiko ongi ateri zirela. Orduan erabaki nuen. Gainera, ordenadore eta telefono batekin etxetik egiten ahal nuen lan hori.

Remote proiektu horren bigarren zatira aurkeztu eta urtebetez arratsaldero Iruñera joan nintzen ikastera: bidegarritasun ikerketa, web orria, internet erabili, garrantzia pertsonala...

Azkeneko sei hilabeteotan, obrak zirela bulegoa egokitzeko, paperak egin behar nituela dirulaguntzak eska-

Ikasketak akitu nituenetik

beti lanean aritu naiz:

zerbitzari, gidari, eta garapen

agente. Bainan ez nuen nere

burua betiko lanpostuetan

ikusten, eta gainera ez dago

hainbertzeko aukerarik.

tzeko, klienteak bilatu behar nituela... horrela ibili naiz nahiko lanpetua. Hemendik eskertu nahi diot zonaldeko garapen agentziari, nere proiektua bideratzeko emandako informazio eta laguntzagatik, baita Zubietako Udalareri ere, honeri esker INEMek enpresa ILE bezala kalifikatu duelako.

Eta ia gaur egun bertze lan batekin nabile. Udalak Zugarramurdiko hospitala zaharra erosi eta proiektu bat martxan jarri nahi du. Dirulaguntza eskatzeko proiektu bat prestatu behar zen eta hortan gabilza ni eta Kili-miliklikeko Iñaki.

Hau da laborri Axura enpresaren historia. Hemendik aitzinera, lanean segitu...

✎ Raul LOPEZ EKAI *EHGAM-Nafarroako kidea*

Zer bait ote dugu ospatzeko hemengo gay eta lesbianok?



Ekainaren 28an ospatu genuen mendebaldeko herri gehienetan gay eta lesbianen nazioarteko as-

kapen eguna. Seguru ikusi dugula komunikabide baten edo bertzean munduko hiriburu haundienetan egiten diren manifestazio erraldoiak. Gure artean ere, EHGAMek (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendua) Nafarroan 10 urte bete ditu

hitzaldiak eta sexu seguruari buruzko tailerak ematen, pelikula pasatzen, festak antolatzen eta gay eta lesbianen aurkako erasoak eta bazterkeria salatzen. Zoritxarez, baliabide eskasak direla eta, aipatutako ekintzak maiz Iruñerria mugatzen dira eta oso gutxitan zabaltzen dira herrialdeko gaitzatzeko zonaldeetara.

Horrexegatik pentsatu behar dugu zer gertatuko den hemendik aitzinera eta hurrengo ekainaren 28 arte eskualde honetako gay eta lesbianekin, eta oro har arau heterosexistaren kanpo bizi garen guziki. Egoera goitik beheiti ez bada aldatzen, gure afektibitatea eta gure sexualitatea izkutatzen segitu beharko dugu. Seguraski betiko irainak eta txisteak jarraitu beharko ditugula aditzen, eta aunitzek badaezpada ere homofobiaren armairuaren barrenean gorderik iraun beharko dute, gauzak honela bi ema-

kume edo bi gizonen arteko harremana ez da inondik ere agerikoa izanen.

Gay eta lesbianok gure sexualitatea eta afektibitatea gure herrietatik kanpo bizitzera kondenaturik jarraituko ote dugu edo oharituko gara denon lana dela askapen sexuala lortzea eta ez bakar batzuen eginkizuna. Gure eguneroko bizitzan, etxean, eskolan, lanean, eta lagunaren artean baztertu beharko genituzke hitz eta aurritzi homofobo guziak, eta horrela giro egokia er-

Gay eta lesbianok

gure sexualitatea

eta afektibitatea

gure herrietatik kanpo

bizitzera kondenaturik

jarraituko ote dugu

edo oharituko gara

denon lana dela

askapen sexuala lortzea

eta ez bakar batzuen

eginkizuna.

dietsiko gure denontzako.

Erakutsi gizar justu eta hobea baten alde gaudela eta hauts dezagun aurritzi matxista eta homofobo oro, horrela, zer bait izanen dugu ospatzeko eskualde honetan heldu den ekainaren 28an.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Argia 99ko ekainok 20

«Garni batean bezala Iparraldekoen eta Hegoaldekoen arteko txapelketak berritzeko asmoa dut. Gipuzkoako Pilota Federazioko presidentarekin egon nintzen Mexikon, eta nahi dute hemengo jende gaztea prestatzea eta jokatzera Senpereren aurka, Miarritzeren aurka...».


Francisco URRUTIA
Antxitonea trinketeko nagusi berria. ELIZONDO.
Egunkaria 99-06-18

«Dozena erdi bertsolarik, Nafarroan gertatzen den bezala, ez du bertsolaritzaren geroa ziurtatzen nere idurirako».

«Harrogo naiz txapelketatik kanpo egin dudana edo dugunagatik, txapelketan egin dugunagatik baino».

Manolo AROZENA
Argia 99-06-20

- ◆ **Musika bandan zuzendari, txarangako kide, gimnasia irakasle, Beti Gazteko jokalaria... eta udan igerilekuko zaindari. Nondik ateratzen duk astia?**
 - ❖ Nahi izanez gero, denbora ateratzen da.
- ◆ **Musika edo kirola aukeratzera ematekotan, zer?**
 - ❖ Biek hagitz gustokoak ditut, beraz, biekin segitu.
- ◆ **Sanfermin Eguneko musikan aldaketarik sartu behar du bandako zuzendari berriak?**
 - ❖ Dantzariekin egon behar dut eta denen artean erabakiko dugu, baina ez dut uste.
- ◆ **Sanfermin egunean goiz hasten da banda lanean. Bezperan abudo erretiratuko zara?**
 - ❖ Horrela beharko luke, baina ezin dut, txarangarekin ere jo behar baitut.
- ◆ **Zein da txarangarekin hainbat ordu jotzen aritzeko sekretua?**
 - ❖ Ez dago sekreturik... Hori bai, fisikoki ongi egon behar duzu.
- ◆ **Zein ezberdintasun nagusi dago musika banda eta txaranga baten artean?**
 - ❖ Txarangakoa musika patxangoa da eta bandakoa, berriz, serioa da.
- ◆ **Futbolera pasatuz, zergatik Beti Gazteko zaletuek azken partidura arte sufritzen egon behar izaten dute beti?**
 - ❖ Hori nahi dugulako jokariok, xaltxa paratu azkenera arte.
- ◆ **Beti Gazte-Gure Txokoa hurrengo derbia noiz ikusiko dugu?**
 - ❖ Ez dut uste biziko naizenik hori ikusteko.
- ◆ **Infantilen entrenatzailea ere izan zara. Harrobirik bada?**
 - ❖ Bai, bai... bidean ez badira gelditzen behinipein, badira jokalaria onak.
- ◆ **Igerilekuan, zein da gehien gorroto duzun lana?**
 - ❖ Goizero aspiradora pasatzea.
- ◆ **Eta gehien gustatzen zaizuna?**
 - ❖ Eguzkitan eserita egotea, lasai ederrean.



Mikel IRIARTE

LESAKA

Musika bandako zuzendaria

ttipi-ttapa telebistaren programazioa

ASTELEHENA, 5

11:00 **Herriz Herri:** Errep.
13:00 **Herriz Herri:** Errep.
17:00 **Herriz Herri:** Errep.
21:00 **Berriak**
21:30 **Jokoa Solas:** Kirol emaitzak eta berriak.



ASTEARTEA, 6

11:00 **Berriak** (err.)
11:30 **Jokoa Solas** (errepika)
13:00 **Berriak** (err.)
13:30 **Jokoa Solas** (errepika)
17:00 **Berriak** (err.)
17:30 **Jokoa Solas** (errepika)
21:00 **Berriak**



ASTEAZKENA, 7

11:00 **Berriak** (errepika)
13:00 **Berriak** (errepika)
17:00 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Bidegurutzean**

ORTZEGUNA, 8

11:00 **Berriak** (errepika)
11:30 **Bidegurutzean** (errepika)
13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Bidegurutzean** (errepika)
17:00 **Berriak** (errepika)
17:30 **Bidegurutzean** (errepika)
21:00 **Berriak**

ORTZIRALA, 9

11:00/11:30 **Berriak**
13:00/13:30 **Berriak**
17:00/17:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Herriz Herri** Bortzirarik eta Male-rrekako berriak, Nerea Alzuri eta herrietako berrie-maileen eskutik.



Eskualdeko ikasleek hainbat sari lortu dituzte Literatur eta Antzerki Lehiaketan

Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutakoak dira

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 22an banatu ziren Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak antolatutako eskal literatur eta antzerkigintza lehiaketa ezberdinetako sariak. Urtero bezala, eskualdeko ikasleek ere sariak lortu dituzte.

LITERATUR LEHIAKETA

Literaturgintza euskaraz lehiaketari dagokionez, Lehen Hezkuntzako Goi Zikloan, ipuinetan bigarren saria (20.000 pezeta) eskuratu du Berako Labiaga ikastolako Saioa Garbisuk, «*Gorkaren gorputzera bidaiia*» ipuinarengatik. Olerkian, Goizuetako Xalto eskolako Aritz Zubirik hirugarren saria (15.000 pta) lortu du, «*Bixente*» lanarekin.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloan Goizuetako Xalto eskolako Alaitz Eskudero bigarren saria (20.000 pta) erdie-tsi du «*Haritza*» idazlanarekin.

DBHko bigarren zikloan, berriz, ipuin lehiaketako hiru lehen-dabiziko sariak eskualdeko idazle gaztetxo-entzat izan dira. Lehen-biziko saria Lekarozko



Literatur, dialektologia eta etnologia, antzerkigintza eta irakurketa lehiaketetan saritutako neska-mutikoeak Javier Marcotegi kontseilariaren eskutik jaso zituzten sariak. Euskaldunon Egunkaria

Institutuko Juan Luis Elizegirentzat izan da, «*Txakur baten oroitzapenak*» lanarengatik. Bigarrena, Leitzako Amazabal institutuko Aroa Huartek jaso du «*Amodioa eta gorrotoa*» ipuinarekin. Hirugarrena, Lekarozko Institutuko Idoia Sobrinok eskuratu du, «*98ko uztailearen 16ko eguna*» idazlanari esker. Olerkian, Berako Toki Ona institutuko Maite Biddartek eskuratu du 30.000 pezetako lehen saria.

DBH ondoko ikasle-arten, narratiban, Lekarozko Institutuko

Usa Ezkurak hirugarren saria jasodu, «*Mendeku zuzena*» narrazioarekin. Ipuinetan, hirugarren saria lortu du Lekarozko Institutuko Asier Larretxeak, «*Denboraren garaitik ihes egin nahirik*» ipuinarekin. Ikasle berak bigarren saria jaso du olerkian, «*Plazerraren espetxea*» poema bildumarekin.

DIALEKTOLOGIA ETA ETNOLOGIA LEHIAKETA

Dialektologia eta etnologia lehiaketan, DBHko lehen zikloko sari nagusia (40.000 pta) Goizuetako Xalto es-

kolako Naiara Arozenak irabazi du, «*Goizuetako Amerikanoak*» lanarekin.

EUSKAL ANTZERKIGINTZA

Euskal antzerkigintza lehiaketan, errepresentazioaren hirugarren saria jaso du Lesakako Irain eskolako, «*Markesaren alaba*» antzeslanarekin. Lan honetan parte hartu duen Jon Iribarrenek aktore onenari emandako saria jaso du.

Pedro Diez de Uzturrun irakurketa lehiaketan, azkenik, DBHn, Lekarozko Kukuak taldeak saria jaso du.



PAGOLA

TXISTORRAK BADU BEREZKO IZENA

948 630 054
Altzateko plaza, 2
BERA

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.

© 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

FOTOKOPIAK
tsuri beltzean
KOLORETAN
PLASTIFIKAZIOAK
ENKADRETTAK
SERBIZIOAK
28 Ekaineko 2007ko 21700

DISLINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA

IRUDI
KULTUR ETXE AURREAN
BERA
Tel-faxa: 948 63 15 21

Sorpresarik ez bada Josu Goia izanen da alkate berria

Larunbat honetan hartuko du kargua Udalbatza berriak

ASIER GOGORTZA

Beratarrek inoiz baino intentsidade handiagoz bizitu ditugu aurtun udal hauteskundeak, independenteen erretiroarekin ez baitzegoen batere garbi alkatetza ze aldetara eroriko zen. Ekainaren 13an duda guziak uxatuko zirela iduri zuen, baina ez da horrela izan, hauteskunde ondotik ere zurrumurru franko sortu baita gai honen inguruan.

Izan ere, Josu Goia alkategai proposatzen zuen Euskal Herritarrok taldearentzat izan ziren boto gehienak, baina bertze bi taldeek elkartuta alkatetza kentzen ahal diote. EAk lau zinegotzi eskuratu ditu eta EAJ-PNV bi, eta beraz, bien artean akordioa lortu ezkerreko EHri alkatez kentzeko aukera izanen lukete.

Berako EHren oharra

Dena den, ez du iduri larunbateko batzarrean horrelakorik gertatuko denik. EA eta EH taldeek bilkura bat egin zuten hauteskunde ondotik, eta horko berri emanez prentsa ohar bat igorri zuen Euskal Herritarrokek TTPI-TTAPARA. Bertan aipatzen denez, gainontzeko taldeekin hartu-emanak



Tokiko historia ikertzen ikasteko kurtsoa antolatu du Bidasoa Ikerketa Zentroak

Uztaitetik irailera bitarte herrietako historian murgildu nahi duenarentzat aukera polita eskaintzen du Bidasoa Ikerketa Zentroak. Inguruotan tokiko historiari buruzko interesa eta grina duen jendea egon badago, baina ikerketa zientifiko samarrak egiteko lan metodologia bat erakutsi nahi diete ikastaro honetan. Ahozko historiari buruzko argibideak ere emanen ditu Juainas Paulek. Izena emateko deitu 606 408 613 telefonora.

Bertzalde, **Lamixine Antzerki Taldea** ere indartsu dabil, eta hiru ikastaro antolatu ditu uztailerako. Batetik, ahots ikastaroa, egunotan egiten ari direna, eta bertzetik antzerki ikastaroak: bat hirugarren adinekoentzat eta bertzea haurrentzat, hauek uztailaren 14tik 16ra.

edukitzeko prest daude, eta baita Udalberria sortzeko iritziak trukatzeko ere. «*Jadanik –gaineratzen du oharrak– bileran bat egin dugu EArekin, eta alkatetza zerrenda bozkatuena errespetatuko dutelajakinara zi digute*». Joan den ortzegunean EAJekin ere bildu zen EH.

Kontuak kontu, larunbateko kargu hartzean zer gertatzen den ikusi beharko dugu alkate berria segurutik nor den jakiteko.



Josune Elgorriaga Euskal Herriko haur kantarien txapeladun ateri da

Eskualdeko eta Nafarroako irabazle suertatu ondotik, ekainaren 18an Bizkaiako

Arrigorriaga herrian jokaturako Haur Kantari Txapelketan ere lehendabizikoa gelditu zuen beratar hau. Maria Pombarrek akordeoiarekin lagundu zion "Loreak udan" kantua abesten, eta epaileen ustez Josunek merezi izan zuen Euskal Herriko txapela. Zorionak eta segi horrela!

flash

Bestetako argazkiak

Herriko bestetan TTPI-TTAPAREkin batera ateriko dugun gehigarri irako etxean gordetako zaharrak uztea nahi genuke. Deitu telefonoz edo pasatu Herriko Etxearen beheko solairuan dugun bulegotik, argazkiaren datuak emateko. Eskertuko dizugu.

Sarituak

Nafarroako Gobernuak kirol munduan meritu gehien duten nafarrak saritzen ditu urtero. Aurten, ohore hori izan dutenen artean bi beratar sartu dira. Batetik, Luis Pikabea Ordoki, hainbat urtez Gure Txokoako pilota eskolan egin duen lanarengatik, eta bertzetik Enrique Irazoki Berasain, txirindularitzan egin dituen merituengatik. Dakizuen bezala, Enrique hainbat urtez C.C. Beratarren ardura-dun izandu da. Zorionak bieri!

Margo erakusketa

Maria Jesus Petrikoren beratarren akordeo ikusgai egon dena Kultur Etxeko erakusketa gelan uztailaren 2tik (ortzi-oretatik) hasi eta hilaren erdirarte. Goiz eta arratsalde egonen da idekia, 10etatik 13etara eta 18etatik 20,30etara.

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

ERREKALDE ostata
Tfnoa: 948630259 - BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

948 631462
Alzate I • BERA

Xirgil
Jaiak
Jaiak
Jaiak



“Markesaren alaba” antzeslanarekin zenbait sari jaso ditu Irain eskolak

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak antolatutako euskal antzerkigintza lehiaketan zenbait sari jaso ditu Irain eskolak taularatutako «Markesaren alaba» antzeslanak. Errepresentazioan hirugarren saria jaso dute eta zapatariaren papera egin duen Jon Iribarren aktore onena bezala izendatu dute. Ikasturtea akautzeko emanaldia eskaini zuten eskolan, ekainaren 19an.

Udal korporazio berria estreinatuko da Sanferminetan

EAJ-EAK zazpi ordezkari eta EHk lau lortu dituzte

AITOR AROZENA

Horixe izanen da, hain zuzen, aurtengo Sanferminetan izanen den berrikuntzarik haundiena: txupinazoa botatzenedo egun haundiko prozesioan udal kide berriak izanen dira protagonista. EA-EAJ koalizioak 995 botu eta zazpi zinegotzi eskuratu zituen ekainaren 13ko udal hauteskundetan. EH taldeak berriz, 556 botu eta lau zinegotzi lortu zituen. Modu honetan, uztailearen 3an osatutako udal berria honako hameka zinegotziak egonen dira: Jose Luis Etxegarai, Carlos Ubiria, Severiano Txoperena, Esteban Etxebeste, Juan Fermin Mitxelena, Jesus Mari Za-

pirain eta Esteban Iratzoki, EAJ-EAkoak; eta Joxe Emilio Txoperena, Xabier Portu, Luis Mari Atorrasagasti eta Pello Astiz, EHkoak.

Jubilatuak ekitaldiak Ezkonduen Egunean

San Fermin jubilatuek elkarrekin zenbait ekitaldi antolatu dituzte besetako Ezkonduen egunerako. Dantza soltean seigarren txapelketa egingo da, 5,30etatik aitzinera. Bikote guzietan Lesakakoak izan beharko dute eta Lesakako betiko dantza egiten dutenek puntuazio altuagoa jasoko dute.

Bertzalde, gauean, afaria izanen dute gaueko 9etatik aitzinera erretiratuaren egoitzan. Me-

nua honako hau: Entsalada, Bakailua bizkaitarera, Whisky-tarta; ardoa, kafea, txanpaina eta puroa. Txartelak 2.000 pezetaren truke hartzen ahal dira, uztailearen 6a baino lehen.

Uztailearen 9an Presoen aldeko kalejira

Sanferminetako ortziraletan, uztailearen 9an, arratsaldeko 8,30etan, kalejira egingo da plaza abiatuta. Ondotik, preso eta errepresaliatuei omenaldia eskainiko zaie. Aipatu behar da aurten ez dela egitarau berezirik antolatu txoznen gunean.

Herriko ordezkariak Estatu Batuetan

Estatu Batuetan dau-

den euskaldunek Lesakaren berri izaten ari dira azken hilabeteotan. Almandoz pilotaria izan zen lehendabiziko bisitari; orain Fagoaga ahizpa trikitilariak daude eta uztailearen honddarrean Estitxu Arozena bertsolaria joanen da.

Eskolarteko bertsolari txapelketa

Xabier Terreros eta Erika Lagoma lesakarrak parte hartu dute asteazken honetan Mungian burututako Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari txapelketaren finalean. Nafarroako bi ordezkariekin batera, Iparralde, Gipuzkoa eta Arabako bina eta Bizkaiako hiru aritu dira finalean.

Pertsonaia

7.546 metroko Muztag Ata mendia igaiten saiatuko da Ramontxo Ordoki

Txinako Sing Kiang goi-lautadan dagoen Muztag Ata mendia (7.546 metro) igaiten saiatuko den Nafarroako Espedizioko kide da Ramontxo Ordoki, 37 urteko lesakarra. Hamabi mendizalek osatzen dute espedizioa eta horien artean, Pitxi Egileor da ezagunena. Ramontxok dioen bezala, «burukrazia kontuetan eta porteatzaileak kontratatzeko orduan duen esperientziagatik Pitxi gidaria izanen da oinarrizko kanpamendua bitarte, baina gero, espedizioko bertze kide bat gehiago izanen da. Bertze espedizioetatik ezagutzen dugu eta sobera ongi ez bazoaz aurriz animatzen zaitu. Hori bai, arazoak izanen dituzula uste badu, gibelera jotzea aholkatzen dizu». Joan den asteazkenean abiatu ziren Txinara. Aconcagua egon bada ere (6.959 metro), 7.000 metrotik goiti lehendabiziko esperientzia izanen da Ramontxorentzat.



Ramontxo ORDOKI

BITTIRIA HARATEGIA
 ☎ 948 627555
 Bittiria, 43 • LESAKA

ETXALAR

Udaren hasierak akabila eman die aurtengo ikasturteei

Haurren Eguna izan da egun nagusia

PELLO APEZETXEA

Nahiz eta ez izan ikasturtea akautzearekin lotua, halatsuko itxura hartzen du Haurren Eguna. Ekainaren hirugarren igandea da, izan ere, eta Eskolan urtean barrena burututako hainbat lanen erakusketa. Ipuin Topaketa izan zen, oraingoan ere, ekitaldi nabarmena. Hiruretan hogeita bat ipuin idatziak, beraietako lau irakurri zituzten haurrek, ozenki, jende aintzinean. Hala ere, gainerakoak ere irakurri ahal izan zituen nahi zuenak, paneletan banatuak baitzeuden denak. Idazle guziek hartu zuten, gero, liburu bana, sarizat. Haurrez gain, irakasle, guraso eta helduen partehartzea ona izan zen, inoiz bai-

no haundiagoa. Trikitilarien giro-alaitzea, plazako bazkaria eta arratsaldeko antzerkia egunaren osagarri egokitzen jo behar ditugu.

Landagain eskola osoaren eskurtsioa

Ekainaren 21eko bi-daia izan da Eskolak prestatutako hondar ekintza. Iparraldean barrena, Isturitzeko lezeak ikusi, eta, hainbat herritan barrena ibili ahal izan ziren. Lehenago kanpaldiak eginak zituzten, zikloa eta bertze herrietakoekin batera.

Helduen ikastaroei ere, aio!

Honez gero finko bihurtzen ari diren helduen ikastaldiek ere, ekainean izan dituzte

azken egunak. Baratzaintza eta frutikultura nahiz eskulangintzak ikasle eta segitzaileru ugari eta gogotsu bilizen ditu hondarreko urteetan.

Eta ez du iduri aseta gelditzeko intentziorik dutenik. Sukaldaritzako egunak lehenxago akautu ziren, baina horretan ere ez dute aspertzeko itxurarik.

Udalbatz berria uztailarekin jabetuko da

Telleriko Migel Mari, Aldalurko Joxe Mari, Lakateneko Bordako Patxiku, Errandoneko Garazi eta Iriberriko Jose Jabier, Herri Taldearen izenean, eta Joanabarreneko Agustin eta Aranaldeko Manuel, EAren izenean, uztailaren 3an jabetuko dira



Haurren Eguna behar bezalako akabaila eman zion aurtengo ikasturteari. Neska mutikoentzat egun polita izan zen, baita guraso eta irakasleentzat ere.

TTIPI-TTAPA TB

botoek bizkarreratuta-ko eginkizunaz.

Zeru goibela igerilekuen irekitzean

Zeru goibelak egin zion ongi etorri igerile-

kuen lehen egunari, ekainaren 19ari. Hala ere, ondotik egun onak etorriko direlakoan egonen gara. Xabi Txoperena eta Eneko Fernandez lesakarrak dira aduradunak.

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

ZALAIN

JATETXEA
 EGUNEKO MENUA FTA KARTA
 Zalain Auzoa
 ☎ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

«**USOA**»
 NEKAZARI KOOPERATIBA

 Ganaduentzat pentsurik egokiena
 Tfnoa: 948635214
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA

Jatetxea
ETXALAR
 ☎ 948635290

KAXULA

 - Sukaldeko tresnak
 - Opariak
 - Pinturak
 Albistur, 51 LESAKA
 ☎ 948 63 75 58

HARITZE

JATETXEA
 948635235
 948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

 Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

ERROTAZAR

 PRODUCTOS ARTESANOS
 Eztegarra 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
 Agerra Auzoan

IGANTZI

San Juan Xar Eguna, herriko besta ttikia, eguraldi ederrarekin ospatu zen

«Garai batean... hura besta hura» diote adinekoek

JAIONE SEIN

Aspaldiko urtetan bezela, San Juan Xar eguna ospatu zen joan denortzegunean. Azken aldi honetan jendetza handia biltzen dabal inguruko herrietatik bai gipuzkoa aldetik ere.

Eguerdiko 12etako meza nagusiarekin eman zitzaion hasiera egunari. Ondotik herriko dantzarien saioa ikusi genuen. Bitartean eta bazkaltzeko ordua ailegatu arte frexkagarri bat hartueta San Juan erroskilak erosteko aukera ere bazen herriko gazteak horretarako jarritako kantinan. Ez dugu aipatu gabe utziko urbedeinkatu hartu zutenak ere saila izan zirela, batzuk freskagarri moduan bertzeak larruko gaitzen bat edo sendatzeko fedearrekin.

Bertara hurbildu zen



batek holako kontu zaharrak aipatzen zituen aspaldiko lagun artean: «Garai batean, bertzelako ilusioa izaten genuen eguna hau ailegatzeko, batez ere Irisarri auzokoak ginenak. Irisarriko auzokoentzat herriko bestetako edozein egun bezain haundiagoa izaten bait zen

San Juan eguna. Autobusetan etortzen zen jendea ordun ere, eta bertako gazteak egun horretan espartzin xurixuriakin joaten ginen San Juan eguneko meza nagusira. Meza ondotik zubian ezpata dantzarien dantza saioa izaten zen eta gero kantinatant izaten zen kor-

diona soinuan besta giro ederrean egoten ginen. Lau edo bortz kantina jartzen zituzten baino ez edozeinek, subastan! ateratzen bait ziren postu hauek. Kantina bakoitzean kordionista bat aritzen zen musika jotzen eta hauetan edariaz aparte bokadilloak ere ematen zituz-

ten, txardinena, an-txoak, txorizoa... Bazkaltzeko tenoria ailetzen zenean bertakoak etxera joaten ginen, egun honetarako kanpoko parienteak edo kanpoan bizi ziren etxe-koak etxera etortzen bait ziren bazkaltzera eta eguna pasatzera. Baziren hala ere bazkaria bertara eraman eta bertan bazkaltzen zutenak ere, baino kanpotarrak. Arratsaldean berriz hurbiltzen ginen San Juanera, eta kordion soinuan ibiltzen ginen dantzari ilundu arte... hura besta hura...».

Gaur egun berriz jubilatuek bakarrik segitzen dute besta egiten. Aurten 90 bat lagun bildu ziren bazkaltzera herriko Zahar Etxean. Azken urtetan ekitaldi hau Zahar Etxeak antolatzen du eta Herriko etxearen laguntza jasotzen dute.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERBIZAN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadork, errektifikadork
Igantziko Bentak • ☎ 948627572 • Faxe: 948637313

Ostargi Optika
OPTIKO OPTOMETRISTA

- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Hurrei errebisioa egiten zaie

**Eta behar izanez gero...
ERA GUZTIETAKO
BETAURREKOAK
DITUGU ZURETZAT**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 63 07 53

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 • BERA
☎ 948 630 763

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxe: 948 637 313

Uztailaren erdialdean egingen den batzarrean osatuko da Herriko Etxe berria

Euskal Herritarrok taldeko Joxe Ramon Amoros izanen da berriz ere alkate

ELIXABET ETA GARBIÑE

Ekainaren 13ko hauteskundeetan Herriko Etxerako bi zerrenda aurkeztu ziren: EH eta EAJ-EA. Igande gauean, kontaketa egin zenean, emaitza jakin zen: Euskal Herritarrok taldeak bartz zinegotzi izanen ditu osatuko den udal berria (Joxe Ramon Amoros alkategaia, Idoia Etxeberria, Teodoro Pikabea, Xabier Zugarramurdi eta Amaia Telletxea). EAJ-EAk, berriz, bi zinegotzi izanen ditu, Jesus Mari Isuskiza eta Alberto Pikabea. Uztailaren erdi aldera egingen den plenoan eratuko da udal berria eta alkatea ere aukeratuko da. Argazkian ageri dira mahaikoak kontaketa egiten, jende kopuru handia hurbildu zen hau ikustera.



Ikusmin handia sortu zuen udal hauteskudetako kontaktak. EHk bartz zinegotzi eta EAJ-EAk bi izanen dituzte. Elixabet

Eskolako haurrak barkaziotan

Dagoeneko barkazioak hartu dituzten artean, eskolako haurrak ditugu. Eskolako azkenegunadenak elkarrekin ospatzeko, bidaia egin zuten ekainaren

22an, Larunera eta handik Senpereko aintzira-ra, eguraldi ederra aprobetxatuz. Aurten zortzi ikaslek akautu dute DBHko lehen zikloa eta datorren urtean, denak Toki-Ona institutuan hasiko dira ikasten.

Bi langabetu hartu ditu Udalak herriko lanetarako

Herriko Etxeak Nafarroako Gobernutik dirulaguntza jaso du, herriko bi langabetu kontratatzeko. Bi langile hauek bi hilabetez ari-

ko dira, bertzeak bertze herriko ur-depositoa konpontzen eta turritik depositora doazen tuboak aldatzen zenbait zatitan. Langile hauek Plumonbordako Francisco eta Goikobordako Santiago dira eta ekaina eta uztailaren ariko dira lanean.

Kontzertu handia abuztuaren 13an

Gaszte Asanbladak azken urteotan bestetan antolatzen duen kontzertua dagoeneko zehaztu duela erraten ahal da. Abuztuaren 13an izanen da herriko pilotalekuan eta bertan, Fermin Muguruza eta Brigadistak Sound System, Etsaiak, Latzen eta Arasma taldeak izanen dira. Dirua lortzeko errifak eta kamisetak salgai atera dituzte eta hemendik aitzinana nahi ikusiko dira.

LABEZAR
© 948631076 • BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura Orokorrak
Bera
© 948630735

PIKABEA
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

MARTIKO
Gure baserrietako produktuak
© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

Zinegotzi eta alkate berriek kargua hartuko dute larunbat honetan


Azken legealdikoekin batera bazkaria izanen dute

JAIONE ETA ALBA

Larunbat honetan, uztailaren 3an, Herriko Etxe berriko partaideek beraien kargua hartuko dute. Zinegotzi eta alkate ohiak agurtu eta berriei ongi etorria emateko bazkaria izanen dute.

Azken alean ikusi ahal izan zenuten bezala, Jose Maria Hernandezena «Xuaxi» izanen da alkate berria. Zinegotziak, berriz, Jose Manuel Zugarramurdi, Martin Anzizar, Patxiku Zelaieta eta Margari Capdequi, Pilar Korta eta Raket Urtxegi izanen dira. Lehenengo bortzak Eusko Alkartasunakoak dira eta azkeneko biak, berriz, Euskal Herriarrok-ekoak.

Oraindik ez dute erabakia nola banatuko dituzten udal arlo ezberdinak.



Ekainaren 13ko hauteskundeen ondorioz, Jose Mari Hernandezena izanen da alkate berria. Eskuinean, ekainaren 20ko bertso saio ederreko irudia.

Argazkiak: Jaione



Igerilekua zabalik irailaren 15a arte

Udako lehenengo eguzki izpiekin batera, ekainaren 15ean ireki zen udal igerilekua. Aurtengoan, arduradun berria dago, Jordi Gual elizondarra. Irailaren 15a bitarte zabalik egonen da igerilekua, baina freskagarri bat har-tu nahi duen edonoren-

tzat. Momentuz igeriketa ikastaroak noiz izanen diren ez dago zehazturik, baina badirudi aurtengoan ere burutuko direla. Bertzalde, igerilekuko bonoak nahi dituztenek Nafarroako Rural Kutxan edo Nafarroako Aurrezki Kutxan eskuratzen ahal dituzte, hilabete baterako edo uda osorako.

Bertso saio ederra pilotalekuan

Nahiz eta espero bezain hainbertze jende ez hurbildu bertara, ekaitaren 20an bertso saio ederra izan zen pilotalekuan. Sei bertsolari, hiru nafar eta hiru gipuzkoar, izan zirenta-ula gainean eta bertara hurbildu ziren 150 lagunek giro ederraz go-

zatu ahal izan zuten beraien ateraldiekin. Gaur eguneko gaiak, serio eta barregarriak izan ziren entzungai, bertsozaleen gozamenerako. Honen ondoren, Antzokaitz kultur taldea lanean hasia da ekitaldi berriak prestatzen bsetarako. Berrikuntzak izanen dira, beraz, aurtengo San Tiburtzioetan.

ETXANDI TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN • ☎ 948 450 491

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zagarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

BERA
DESINFECCIONES
☎ 948630155
BERA

BEINTZA
OSTATUA

☎ 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

DONEZTEBE

Burlatako Patxi Arraras nagusitu zen herriko XXI. Krosean

Herrikoen artean, Manolo Otero beteranoa azkarrena

PATXI IRIARTE

Ekainaren 20an burutu zen Doneztebeko krosaren 21. edizioa. Guzira kasiko ehun korrikalarik hartu zuten parte eta senior mailan, Burlatako Patxi Arraras nagusitu zen (25'46"), Gasteizko Roberto Ruiz (25'50") eta Iruñeko Tomas Garcianen aitzinetik (27'11").

Emakumeen artean Rosa Orofino izan zen parte hartzaile bakarra, eta beraz, irabazlea (26'24").

Beteranoetan, Mendillorriko Jose Luis Guillen nagusitu zen (27'47"), Juan Bautista Telletxea beratarrak (28'56") eta eta Iruñeko Angel Turrillasen aitzinetik (29'03").

Herrikoek ere parte hartu zuten

Herrikoen artean senior mailan honelaxe gelditu zen sailkapena:

1. Fernando Ruiz (33'49")
2. Juan M^a Apeztegia (33'51")
3. Santi San Migel (35'25")
4. Luismi Apeztegia (43'16")
5. Jokin Apeztegia (45'32")

Beteranoen artean,



Patxi Arraras irabazlea txapelarekin, podiumean izan ziren bertze korrikalarekin batera.

Argazkia: Legarra

berriz, honela gelditu ziren herritarrek:

1. Manolo Otero (31'14")
2. Joserra Aldabe (32'12")
3. Patxi Ordoki (36'20")

Maila ttikietan partehartze haundia

Jubeniletan, Hondarribiko Mikel Mutuberria sartu zen Zizurreko Alfredo Arregiren aitzinetik. Infantiletan, Errekako Iban Santesteban, Jabier Bertiz eta Damian Iribarren izan ziren azkarrenak. Alebinetan, mutikoetan,

Gwendal Larque beratarrak nagusitu zen, Xabier Elejalde donostiarra eta Paskual Bertiz doneztebarraren aitzinetik. Nesketan, Maider Mindegia eta Jaione Ordoki aritu ziren. Benjamin mutikoetan, Mikel Morcillo beratarrak izan zen garaile, Iñaki Lopetegi irundarra eta Iñigo Ostiz doneztebarraren aitzinetik. Nesken artean, berriz, Zizurreko Amaia Martinez sartu zen Itziar Bertiz eta Amaia San Migel doneztebarraren aitzine-

tik. Aurrebenjamin mutikoetan, Berako Intz Iriarte eta Andoni Riopepe eta Iñigo Goñi donamaritarrak osatu zuten podiuma eta nesketan Maitane Larretxea, Ainhoa San Migel eta Oihana San Migel doneztebarrek. Kategoría berezian, Borja Arregi eta Jorge Ostiz doneztebarrak nagusitu ziren. Kepa Miguel, Emilio Zabala, Xabi Ibarrola, Iker Garcia eta Iñaki San Miguel doneztebarrak ere parte hartu zuten maila honetan.

Oiloa saltsan prestatzen gazteak nagusitu ziren

Ekainaren 19an burutu zen Doneztebeko La Union Kasinoak bigarren urtez antolatutako lehiaketa berezia, oiloa saltsan prestatzea, alegia. Joan den urtean baino dexente bikote gehiagok eman zuten izena. Fran Indart eta Maddi Ruiz suertatu ziren irabazle, sariak eta 18.000 pezeta eskuratuz. Bigarren saria ere, bikote gazte batek eraman zuen, Joseba Telletxea eta Andoni Mendiburuk osatutakoak.

Epaimahaia Kasinoko Migeltxo Erasok, Jose Migel Iribarren sukaldariak eta Axi Arretxeak osatu zuten. Ez zuten batere lan errexia izan.

Barça futbol taldearen Peña

Aurten liga irabazi duela errexagoa dirudi, baina Barça futbol taldeak betidanik izan ditu jarraitzaileak Donezteben. Horiak denak elkartu eta Peña bat osatzea erabaki dute. Zerbait bilera egin ondotik, egin beharreko paperak egiten ari dira orain. Bazkide izateko 3.000 pezeta ordaindu behar da eta lehen ekitaldia larunbat honetan, uztailak 3, izanen dute: aforria Belarra jatetxean.

Gazteen Moda

JOPLIN

Zure gustuko markak

-%30

Juan Arana, 10 • IRUN

☎ 943 61 58 48

t

ttipi-ttapa

telebista

Malerrekan

62. kanalean

Oraindik ongi ikusten ez baduzu deitu

☎ 948 63 70 70

Javier Eneterreaga (Lesaka)

Ibarrola Mertzzeria

Haurrendako arropa

0-14 urte

Parrokia kalea 6 - Doneztebe

948450463

Harieruz

LENTZERIA

Parrokia 11

Tfnoa: 45 01 12

DONEZTEBE

BERTIZARANA - MALERREKA

41 milioi pezetako aurrekontua izanen du Bertizaranako Udalak

Inbertsioetan gastatuko da erdia baino gehiago

TTIPI-TTAPA

40.869.000 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten Bertizaranako Udalak, berriki onartutako udal aurrekontuaren arabera.

Gastuei dagokienez, erdia baino gehiago inbertsioetan joanen da, 21.950.000 pezeta erabiliko baitira horretarako. Legasako karriken urbanizazioa izanen da lanik haundiena, 14 milioi terdiko aurrekontuarekin. Medikuntza moldatzeko hiru milioi terdi aurrikusiak ziren, baina Nafarroako Gobernuak dirulaguntza ukatu duenez, aurten ez da eginen seguraski. Narbarteko zeharbidetaren proiektuak 2.950.000 pezetako aurrekontua du. Aurrekontua onartu ondotik egin-



Legasako karriken urbanizazioan 14 milioi terdi gastatuko dira.

dako aldaketa batean, Narbarte eta Legasara gasasartzea er sartu du Udalak –Oieregin eginabaitago dagoeneko–, baina oraindik ez da onartu. Langileen soldatan zortzi milioi joa-

nen dira eta kontzejuei ematen zaien dirulaguntza, 5.720.000 pezetakoa da.

Diru sarreretan, kasik 13 milioi zerga eta tasen bidez sartuko dira, 12.840.000 pezeta

Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzen bitartez eta 9.200.000 herriak berak sortzen dituen baliabideiesker, bertzeak bertze, herri lurren aprobetxamendua.

flash

Malerrekako Mankomunidade eta zenbait udaletako diruzaina

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatean eta Ituren, Zubieta, Elgorriaga eta Doneztebeko udaletako diruzain lanposturako lehiaketa deitu da. Lanpostua urtebeterako izanen da hasieran eta eskariak uztailaren 21a baino lehen aurkeztu behar dira Doneztebeko udal bulegoetan. Euskara jakiteaz gain, Ekonomia edo Enpresarialetako Diploma eskatuko zaie lanpostua hartu nahi dutenei.

Bidasoa eta Berroarango

Mendietako Administrazio Batzordeak 74.303.872 pezetako aurrekontua izanen du aurten. Kokoriko mendietako Batzordeak berriz, 4.559.924 pezetakoa.

ITUREN

Lesakako Abesbatzak kontzertu ederra eskaini zuen

Xabier Ariztegi omendu zuen Ibintzak

IBAN ISASI

Ekainaren 19an Lesakako Abesbatzak kontzertua eskaini zuen Iturengo San Martin elizan. Jende dexente hurbilduzen kontzertua aditzera, nahiz eta hasie-

ran zenbait gorabehera izan, lehenagotik hileta elizkizuna baitzegoen. Kantu hauek eskaini zituzten: *Beti Maite*, *Danny Boy*, *Goizeanar-gi hastean*, *Jacinto Chiclana*, *Hegoak*, *Camino del indio*, *Deep*

River, *Erribera*, *Elizatikan* eta akitzeko *Agur Jaunak*. Aipatu behar, *Hegoak* kantua berriki hildako Xabier Ariztegi gazteari eskaini ziola Ibintza kultur taldeak, kontzertuan



Abesbatzak emanaldi bikaina eskaini zuen. Artxibokoa

eten bat eginez.

Bestak uztailaren 16tik 20ra

Hurrengo alean egi-

tarauaren xehetasunen berri emanen badugu ere, aurtengo bestak uztailaren 16tik 29ra ospatuko dira.



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Gehigarria

Beholako heriotza

- 1 Heriotza gauza iluna hari beha gaudelarik
Are beltzago uste gabeen gutaz jabetzen delarik
Nundikan zinez bailitekela herrian aski aberik
Odol hotzean ezagun baten hiltzeko tiroz errerik.
- 2 Ezin asmatu gertakaria horra nun dugun ikusi
Jainko jaunaren lege zuzena euskaldun batek du hautsi
Behola hortan ahalge gaitz baita behingotzat jautzi
Urrungo dela hiltzale tzarra, oi nahi nuke sinetsi.
- 3 Senperetik Zuraideko bidean duzu Behola
Guarda andre baten bihotza urraturik han dagola
Gauaz senarra joana zitzaion zainetan azkar odola
Argi hastean ekarri dute azken xorta dariola.
- 4 Ama batekin urrilkatzeko huna bi haur negarretan
Lau urtez aita ibilia zen gerla izigarri hartan
Lau urtez bainan ez zen gelditu etsaien aztaparretan
Herritar baten tiro eroak aitaz gabetu betbetan
- 5 Gauak ardura otsailian motz aurten negua maiz ari
Merxikak lore adanak ere aintzinka primaderari
Gizon bat beltzik, oi hanez oi han, laster doa ihesari
Igande goizak izarño batek begi bat zuen ageri
- 6 Mugetan gandi dabilzaneri oraino beste lau lerro
Ez diton izan Beholan guarda hil duena bezain ero
Lurreko bizi hunen ondotik bizi betikoa gero
Gizonak isil egonik ere Jainkoak badazki oro



Airea: Goizian goizik jeiki ninduzun

Pierrot BORDARE
ahotik (3. eta 5.). **Xabier ITZAINA** itsasuarrak osatua (Hortense Arrate, Itsasu-Fagolako anderearen kantu bilduma baliatuz.

Egundaino holakorik

- 1 Egundaino holakorik ez ahal da nihun gertatu
Herri guzia daukute orai eskandalizatu
Espozatzeko mahain saindura zirelarikan hurbildu
Apezak ere etzakien zoin behatzen esposatu.
- 2 Apezak zituelarik bi andre han ikusi
Bere baitan egin zuen batto beharko dik utzi
Bietarik batere gabe gelditzea likek merezi
Bainan batto esposaturen diat nahiz nik ere zerbait irabazi.
- 3 Mutil haren berriak neska harek jakin eta
Ondotik segitu zaiou haurra harturik lasterka
Bihotzeko mina duk bainan nihori ezin mendeka
Altxa zak burua goiti eta horra nun duken hire potreta
- 4 Hauze da gertakaria tontuen ernagarria
Beti nindukan erraiten hitzela ezkondu nahia
Utzi duk andre xaharra eta
Orai hartzen duk gazte berria.



Olandeiko
FIFIN-en
eskutik

Elizondoko partida (J..B. MILLOX)

- 1 Huna pertsu berriak, nik orai emanak,
Kantuz erraitekotan plekarien famak;
Elgar ezin bentzutuz izan tuzte lanak;
Azkenean nausitu dire zaharrenak.
- 2 Mila bederlatzi ehun hoi-ta bigarrena:
Urte hau ainitzentzat zer orhoitzapena!
Irabaztailek plazer, galtzailek zer pena!
Bethi lanjer menea irriskatzen dena.
- 3 Larunbatarekin zen, abendoak bia:
Orduan jokatu da partidu handia.
Elizondon in zuen diruzko uria
Bai eta proetchatu lapurtar jendia.
- 4 Partidu hau izan da izigarrikoa:
Bakan aditzen baita hau bezalakoa.
Trinketa hautaturik Elizondokoa,
Han eginen zutela guziek jokoa.
- 5 Dongaitz anaiak biak, Leonis ta Arcé!
Partidaren finitzen lanak izan tuzte.
Gaztek galtzerik ere ez baitzuten uste,
Azkenean zaharrek irabazi dute.
- 6 Jean-Baptiste Dongaitz zen gizon famatua.
Ez baita maiz ikusten hoi bezalakoa.
Berrogoi urte eta ehun kilokoa,
Berdin, buruz nagusi, egin du jokoa.
- 7 Besoa hasi zaiou pichka bat ttititzen
Gorputza pisutu ta ilea zuritzen:
Bainan halere ez da batere izitzen,
Azkenean badaki kintzea trenkatzen.
- 8 Partida egiletan bat zen Mendiondo:
Ez omen du ikusi nehor egundaino
Horrela atchikitzen azken kintzeraino
Ondarrean Jean-Baptiste nausi zen oraino.
- 9 Hamar mila libera alde bakotchetik,
Behar zuzten jokatu hasteraz geroztik:
Trebesak zenbat ziren Jainko onak zakik,
Galdu duten gaichoek ere bai hartatik!
- 10 Ondoan banituen urgulutsu hainitz,
Oihu-garrasiaka chantza bildu nahiz:
Sekulan parada hoi jiten bazait berriz,
Begira egonen naiz bazterretik irriz.
- 11 Partida horren famak horra hor pertsutan,
Guziek kantatzeko Eskual-herrietan.
Nihor gertatzen bada ene beharretan.
Zerbitzaturen ditut denak lorietan.
- 12 Kantuen emalea Batista handia
Guziek dakitena, gizon bat noblia;
Pertsu berri emaiten parerik gabea;
Lanetik ageri da ofizialea.

Partida bana irabazia zuten eta finala Elizondon jokatzea erabaki. Partida trinketa jendez gainezka zela jokatu zen. Aldekoak eta kontrakoak bero bero, esku zartak, kintze oro, jotzen zituzten karrikan zirenek ere.

Atzoko kantuetaz orroitzean

Oxtikenean, Uztailaren 11an, "Kantu zahar ez ezagunaren Eguna" ospatu behareta... Senpertar kantu "zale" zombait ikusi nahi izan ditugu... Guzien artean, suerteak ereman gaitu Joana Gabarrus eta Graxi Jeannou-Bonneteri bisita baten egitera Joana Gabarrus, Mattin Irabola-Goya, "Matxin" izenordeaz ezagutua izan den, Senpertar Pertsulariaren alaba dugu. Hunen bere aitaren orroitzapen goxoen erdian, beharba kantuetaz zerbait jakinen ginukelakoan, bi hitz elgarretaratu ondoan, laster oharitu gira, zombait, ezagutzen zuten guziek, maitagarritzat zaukaten... "Matxin".

Amotz Sorropilarat esposatu zen Dominika Ermuarekin, 3 Haur altxatzeko..., bizpahiru behi, lur gutti bizitzeko, maiz behartua eskuin eta ezker lanean ibiltzea diru pixka baten sakelaratzeko... hala ere gizakitasunean, munduko aberatsena zitaken, ikusiz zombait eta zombatek lagun gisa zaukaten... Gerla haundia egin zuen buruen buru, nahiz eta, memento batez, bere izaitea gerizapean emaiten ahalko zuen. Hor oharitu baitzen gerlaren injuztizionartezinari: "Izpiritu duenak errex du pentsatzen, gure diferentzia zombatekoa den, haundiak ari dira ttipien manatzen, pobrearen indarrez galonez altxatzen, Ohorez haunditzen, mirailaz beztitzen, diruaren biltzen, intresen doblatzen, gu, horien manutik elgar hiltzen".

Joana Gabarrusek, bere aitaz dauzkan mila orroitzapenetan, huna anekdota edo ger-



Joana Gabarrus eta Graxi Bonnet-Jeannou elgar hizketan

talditxo bat. "Egun batez, lanerataixexo joan zedin, neure ahizparekin nahi izan diogu gure aitari irakutsi: Bizikleta gainean ibiltzen..., Biderat heldzean huna nun aurkitu zituen bi lagun... Akabo Bizikleta... beharizan ginuenetxerat bizikletarekin biak bakarrik itzuli...!"

Kantuz mintzatzeko, "Matxin" ezzen kantaria bainan kantuaeren laguntza beharrezkoa zaukan bistan dena pertsuen botatzeko. Amotz Blankartegiko murruek, Senpereko paretek mintzaten balakite...! Zer Lastima ez zauzkula bere hitzak ixkrituz bederen gure entzumenaraino bidaldu... Zer egin? Ez dugu bizia manatzen

ahal... Dena den Matxin sobera goizik joan zauku: 55 urtetan, 1935 eko Apirilaren 9an, lehen gerlaren tratu txarren (gazatua izana zen) gatik, eta, hemen, lur huntangaur oraino, Joanari, bihotz xokoan, bere aitaren hain goizik joatearen zauria, ez zaio kantitzen...

Graxi Jeannou-Bonnet, Ibarrun-Ottolonea, orai Bonneteia bezala ezagutzen dugunaren, ostatu-etxe koalaba dugu. Bera eta bere familiako guziak bezala, kantuaeren lehiaz ttiki ttikitik hunkitua, oroitzen da oraino, nola, nekato ttiki zelarik, memoria ñir-ñir, ikasten zituen, entzunez, Antton, bere aitaren kantu guziak, hau bi-

zar egiten ari zelarik... Oroitzen nola ostatuan, bere aitak ez zuen ere soportatzen ahal, hitzen ordez, "lalala" leloa aditzea... Oroitzen nola, San Jakobetan, Helbarrungo bestetan, Mingoineko leihoan entzuten ziren, orduan hainbat maite ziren pertsuak... Ohartzen gira maiz, ximiko batsortzen zaiola noiz nahi Graxiri, nostalgiak sortarazten duen ximiko horietarik bat eta iduri du kantuz ari dela bere baitan ixilik, beharba oraino bere haur denborako aireak beti bere baitan dituelakotz...



Jondoni Joane gauaz

Jondoni Joane gaua, urteko gau laburrena, iragan dugu, urte guzietz bezala, Ekainaren 23a eta 24a artean. Ez dakit zonbat ohartu garen funtski, gertakari hortaz, zonbat ere garen, mundu indutrial-tekniko-salerrosle egituratu huntan, ohartu garenik, gure izaiteak planteatuak ditugula, betidanik, nahi ala ez, naturak, berez-pazio eta denboran eremaiki dituentertakizunetan... Guttinaski...! Zeren, oraiko gure bizimoduek gordetzen dautukutelakotz jakin gabe, bizi dugun espaziotenporalitate guzia...: goizeko 7etan jeiki, 8etan lanerat joan, eguerditan jan, 2etan berrit lane rat, arratseko 7etan etxerat sartu, gero afaldu, 8etan telebista begiratu, 10etan ogerat sartu, eta hori kasik egun guziz, urte guzian... Bainan, gure manera horiek zer dute egiazki aldatzen munduaren ibilbidean? Hor ditugu beti: sasoinak, urteak, ilargiaren aldatzeak, eta abar... Berdin, nahiz zientziaren kuriostasunez ainitz gauza ikasi eta egin, beti hor ditugu gure munduaren elemento naturalak (ura, sua, airea, lurra), beti eta betidanik, bere baitan atxikitzen duten misterioa oso osoan. Ez da harritzeko beraz, Jondoni Joane gauean, gure arbasoek, beren sinesmenetan, lotzen zizutuztela elgarrekin: menpera ez zitezken denbora eta espazioaren gertakizun harri garri bat (hemen, urteko gau

laburrena), naturaren ulertezin ditaizken elementuekin (ura, sua, airea, lurra bere belar-landarekin).

Gaur, oraino, lehen bezala beti sinesmenetan gaude, bakarrik, maneretan dira aldatu oraiko sinesmenak: gero eta gehiago, aztrologoak, galdezkatuak dira, gero eta gehiago publizitateak erabiliak zernahi sinestazteko, gero eta gehiago medikuntzan, "placebo" eraginak baliatuak, gero eta gehiago erlijione zahar eta berriek baidute arrakasta...

Hori guziari pentsatuz, Senperen, iragan dugun Oxtikeneko Jondoni Gaueko besta lotzen da gure aintzinekoen maneren erran nahieri, erakutsiz, betikoa den gizakia oraino gizaki dela, eta gizaki bezala, edozoin sinesme-



Paxkual Duhau, Jondoni gaueko suaren giblean

neri lotua bai eta ere, naturaren ertzeetatik ezin ateraia...



Aurxin Zamora
1999 / 06 / 23-24



Jondoni Joni gaua... Anuntxi Aranaren inguruan

Uztailaren 11n kantu bazkaria Oxtikenean

Kantu zahar ez ezagunaren eguna, Senpertar kantari haundiekin. Parte hartzekotan dire:

- Bergara, ganix «Txistu»
- Bonnet/Jeanou Grazi
- Borda, Pierrot
- Brave eta Bessonart
- Casaubon, Jakes
- Elhorga, Lauren «Arretxea»
- Fagoaga «Apeztei»
- Fagoaga Austeiko Gabi
- Fifin Olandeikoa
- Irubetagoiena, Jako



Musqi hitzen musikari

- Irubetagoiena, Antton
- Mendiboure, Paxkal
- Soudre, Jan Pier
- Tapia, J. Battit
- Zamora, Beñat

Eta kantu zaharrak ezagutrzen dituzten guztiak. «Gatea ez dadin hautsi».

Eguerdi terdi aldera

OXTIKENEKOAK

Euskal

Elkartea

Senpere



hasiko gira, argazki bat hartuz elgarrekin oroitzen gisan. Gero aperi-tifa, bazkaria, jan edan nahi bezenbat, giro ezin hobean.

Bazkaria 130 Libera a d i n e k o e n t z a t . Eskoletako gazteentzat erdi prezio.

Tokiak neurtuak izanez, otoi eman izenak.

Euskal kantugintzaren laburpena

1

860ko hamarkadan Antoine Abadiak antolatu zituen Kantu lehiaketak. Gero hiru gerla haundiek (70-14-40koek) euskal jendea desegin zuten. 1946ean Euskal Ikasketen Kongresukari Baionan egin zen kantu eguna, euskaltzaleen biltzarrak

Larzabalen eta Baigorriin 1970ko hamarkadan jarraituz. Erran liteke Euskal Kantua berpizten zela 1960an, hain zuzen 100 urte Abbadia eta geroago.

Bainan, behar bada, erran haundiko kantu zaharren bilakaera 1955eko maiatzaren 15ean izan zen LIGIn (Xuberoan). Besta xoragarrria izan omen zen hura. Saristatuak izan ziren:

- kantu gehiena zekiena.

- Aire ederrena eman zue-na.

- Kantari hoberena

- Aire gehiena zekiena.

Ez dakigu eman ziren kantuak inork zintan hartu zituenik. Bainan segur altxor ederra zitekela xuberoarrek eman zituzketen kantu eta aire ederrenak.

Erraiten dute hemendik zombait urtera munduko hizkuntzen %90 desagertuko direla eta euskara ere arris-

ku haundian dagoela. Guk ere, gureak gal ez ditezen, zintan hartuak izanen dira, herritarrek goza dezaten eta gazte belaunaldiari pasatzeko. Kultur nortasuna indartzeko, herri memoria: kantua, erran zaharrena, hizkuntzarena, gure izaitarena berpiztu beharra da.



Joana Menditurru
Iturria: Encyclopédie Basque

ARKUPEAK

85. urtebetetzea eta Urrezko Ezteiak ospatu dutenei omenaldia eskaini zitzaien

Elkartearen hamahirugarren urteurrena ere ospatu zuten erretiratuek

TTIPI-TTAPA

Joanden ortzira lean, ekainaren 25ean ospatu zen Arkupeak elkartearen urteroko Anaitasun Besta Donezteben. CANen laguntza izan zuten aurtengoan ere antolatzerako orduaneta, ohi bezala, gi-

ro eta animazio bikaina izan zuten besta egun ederhonetan. Jakina den bezala, aurten 85 urte bete dituztenak, urrezko ezteiak (50 urte esposaturik) betedutenak eta Arkupeak elkartearen hamahirugarren urteurrena ospatu dute.

Aurtengoan, 39 la-

gun dira lautan hogeita bortz urte betetzen dituztenak eta 26 bikotek berrogeita hamar urte betedituzte senar-emazte egin zirenetik.

**HERRIZ HERRI
ABIATUTAKO AUTOBUSAK**

Ekitaldiak goizetik hasi ziren, herri ezber-

dinetatik abiatutako autobusak Doneztebera ailegatu zirenean. Gero Meza Nagusia eman zuten Bikario Nagusiak, zenbait herrietako apezzen laguntzarekin. Txistulariek eta bertso-lariek ere parte hartu zuten ekitaldian, Nafarroako Gobernuko eta

udal ordezkariekin batera. Gero, adinekoek bazkaria izan zuten Bordatxo dantzalekuan. Bazkalondoan, omenaldia eskaini zitzaien aurtengo bestaren protagonista nagusiei eta azkenik, dantzaldia izan zuten Bordatxon bertan AMALUR taldearekin.

Urrezko Ezteiak

ARANTZA

Francisco Gonzalez Ezpeleta - Dolores Burgete Alzuri

ARESO

Anastasio Olazabal Amunarriz - Ageda Treku Zubiri

ARIZKUN

Pedro Bidart Jaurena - Concepcion Zaldain Agirre

BEINTZA-LABAIEN

Migel Saldias Gragirena - Angela Erasun Iriarte

BERA

Urbano Errandonea Errandonea-Carolina Maia Bergara

Migel Pikabea Goia - Pilar Irazoki Agirre

ELBETEA

Agustin Ariztia Etxenike - Trinidad Etxenike

ELIZONDO

Alfonso Bidegain Etxeberria - Emilia Dorremotz Sarratea

Manuel Goñi - Juana Pikabea

Jose Larretxea Ariztia - Esperanza Etxenike Larnagarai

ERRATZU

Francisco Iribarren Irigoien - M^a Carmen Etxeberria Irigoien

ETXALAR

Santiago Mikelestorena Irigoien - M^a Carmen Zubieta Iparragirre

Jose M^a Berroeta Zubieta - Milagros Santesteban Elizondo

Pablo Goienetxe Irigoien - Josefa Danboriena Sanzberro

Antonio Ameztoui Irisarri - Francisca Danboriena Etxeberria

Jose M^a Danboriena Etxeberria - M^a Purificacion Danboriena

Toribio Agesta Arburua - Perpetua Arburua Iturria

Jose Paul Borrals - Anuntxi Agesta Arburua

EZKURRA

Migel Gastearena Eskala - Maritxu Elizalde Mariezkurrena

GAZTELU

Pedro Sagardia Erneta - Victoria Lazkano Ustariz

IGANTZI

Ignacio Retegi - Bixita Iturbide

IRURITA

Juan Francisco Zia Zalba - Concepcion Maz Zarlangué

LEITZA

Ramon Astiz Arraras - Maria Goldaraz Mendioroz

Luis Alduntzin - M^a Jesus Zabaleta

ORONAZ

Juan Ignacio Rekondo Zabaleta - Asuncion Aizpuru Iribas

ZUGARRAMURDI

Agustin Amorena - Maria Josefa Larnagarai

85 urte

Jose Oskoz	Almandoz
Fausta Inda Martinandiarrena	Almandoz
Magdalena Iribarren Indart	Amaiur
Lorenzo Mutuberria Petirena	Arantza
Modesto Jorajuria Larramendi	Arraioz
Remigia Erasun Iriarte	Beintza-Labaien
Soledad Olazar Iriarte	Berroeta
Julia Arregi Elorga	Doneztebe
Jose Elizegi Elizetxe	Elbete (Berro)
Elena Martiarena Arregi	Elizondo
Teresa Iribarren Elizetxe	Elizondo
Rosalía Barrenetxe Elizetxe	Elizondo
Francisca Sobrino Petite	Elizondo
M ^a Paz Irisarri Iturbide	Etxalar
Candido Gastearena Eskala	Ezkurra
Joaquina Huitzi Madariaga	Igantzi
Agustin Antxordoki Irigoien	Igantzi
Fermin Amorena Goñi	Irurita
Cecilio Apeztegia Elizagoien	Irurita
Jorge Azkarate Arruti	Irurita
Mauro Goikoetxea Etxeberri	Irurita
Julia Larregi Gillenea	Irurita
Pedro Urrutia Bikondoa	Irurita
Graciano Zubieta Arretxea	Irurita
Micaela Goñi Apeztegia	Irurita
Dionisia Otxandorena Etxekolanea	Ituren
Anastasia Mikelarena Bera	Ituren
Joaquin Azpiroz Jaunarena	Ituren
Fermina Bergara Zubiri	Leitza
Mikaela Labaien Lasarte	Leitza
Katalina Olano Villabona	Leitza
Vicenta Sukunza Urkiola	Leitza
Silvia Zabaleta Huitzi	Leitza
Juana Sanzberro Alberdi	Narbarte
Juan Jose Ziganda Ariztegi	Oitz
M ^a Cruz Larregi Karrikaburu	Oronoz
Tomasa Telletxea Elizalde	Saldias
Jose Pernaute Telletxea	Ziga
Jose Perotxena Elizalde	Zubieta

GOIZUETA

Udalbatza berria larunbat honetan osatuko da

Alduntzingo zentrala bota dute

ESTEBAN AROZENA

Larunbat honetan, uztailak 3, Axun Ariztegi idazkariaren gidaritzapean egingen den batzar berezian jabetuko dira beraien karguetaz ekainaren 13an herritarrek hautatutako zinegotzi berriak.

Dagoeneko gehienek jakinen duten bezala, Pili Untxalo, Laxaro Apezetxea, Jokin Loiarate, Idoia Albistur, Dani Narbarte, Fermin Narbarte eta Ibon Elizegik osatzen dute hurrengo lau urteetan Herriko Etxean lanean ariko den taldea. Hiru aurreko udalbatzan partaide ziren, eta beste lauak berriak dira. Ez baldin bada ustegabekorik gertatzen, larunbat eguerdi-

ko batzar horretan gainerako kontzejalek alkate posturako Pili Untxalo hautatuko dute.

Alduntzingo zentrala bota dute

Alduntzingo zentralaren jabea zein zen argitu bezain pronto hantxatzen gora berehala botatzeko agindua eman zuen Udalak, eraikin horri buruz arkitektuak egindako txostenak arrunt egoera arriskuetsuan zegoela baitzioen. Scott Iberica S.A. enpresak, jabeak alegia, dagoeneko bete du agindutakoa.

Eskolarteko pilota txapelketa

Nafarroako Eskolarteko pilota txapelketa-ren finalak larunbat ho-



Musika eskolako kontzertua

Polit askoa izan zen ekainaren 20an herriko musika eskolakoek eskaini zuten kontzertua



Euskal Herriko kantu txapelketa

Hirugarren eta laugarren postuan gelditu arren, hagitx emanaldi txukuna eskaini zuten Euskal Herriko kantu txapelketan aritu ziren goizuetarrek.

netan, uztailak 3, jokatuko dira Iruñeko Labrit pilotalekuan, eta bertan, gehienetan gertatzen

den bezala, Goizuetako ordezkariak izanen dira. Benjaminetan Iban Eskudero eta Ekaitz

Narbarteko jokatuko dute; infantiletan, berriz, Iban Loiarate eta Xabier Apezetxeak.

ARESO

Udako ekitaldiak bata bestearen ondotik

Eskolako haurrak Zarautzen izan ziren

JUANA M^a SAIZAR

Udaran sartu garelako nabarmena da. Eskolako umeak bi egunetarako irteeran Zarautz aldera joan ziren eta hondartzan ibiltzeko parada izan zuten. Hurrengo astean, ikasturteari bukaera emateko, antzerkia eta dantzak presta-

tu zituzten. Bukatzeko, hamaiketako, denen artean eramandako jantzi eta edariekin.

Festa batetik bestera, San Juan bezperakoa hain xuxen. Eguraldi ezin hobea lagun zela, herriko plazan afora antolatu zen. Trikitixa eta pandero soinuak ez ziren falta

eta ilundu bezain laister sua piztu zen plazaren erdian ume txoen gozamenarako. Badira festa gehiago ospatzeko, San Pedroak esate baterako, baina lerro hauek idaz-



Aurtengo ikasturtea bukatu dute haurrek.

terakoan, oraindik ospatugabedaudenez, hu-

rrengorak utziko ditugu.



San Juan bezperako afaria

San Juan bezperako afarian marka guztiak hautsi dira. Aurreko urtean 700 lagunentzat lekua prestatu zen eta eskas gertatu zenez, aurten 750entzat prestatu da. A la ere elkarteetatik eta mahai gehiago jarri behar izan dira. Argazkia joan den urtekoa bada ere, bistan da izugarrizko arrakasta duela afari honek.



Urrezko Ezteiak

1949ko uztailaren 28an ezkondu ziren Iruñean Ramos Astiz Arraras eta Maria Goldaraz Mendioroz. Urrezko Ezteien meza uztailaren 3 In izanen da Arruizko San Kristobal elizan eta bazkaria Mugiroko Benta jatetxean. 50 urte ezkonduak betetzen dituzten senar-emazteekin batera, beraien 13 seme-alabak, 10 suhi-errainak eta 21 bilobak izanen dira.

Saharako ume taldea ekarri ahal izateko ia hiru milioi pezeta bildu dira herrian

Horretarako akordioa hartu zuen Udalak maitzeko batzarrean

JOSEBA AZPIROZ

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak TTPI-TTAPAREN bitartez eskerrak eman nahi dizkie Leitza, Areso eta Lekunberrira Saharako ume talde bat (34 ume eta 2 begirale) ekarri ahal izateko laguntza eman duzuen guztiei. Eskerrak, egitasmo honen helburu bikoitza, hau da, Sahararrak beraien herrian jaso ezin dituzten zerbitzu ezberdinak jaso ahal izateko eta Saharako herriaren egoera zein den ezagutarazteko eta elkartzuna

adierazteko laguntza eskaini duzuen guztiei. Haur hauek hona ekartzeko egin beharreko gastuei aurre egiteko (hiru milioi inguru aseguruetan, bidaietan, etab.) herritarren laguntza nahitaezkoa zela ikusi zuen talde sustatzaileak. Eraitza espero zutena baino hobea izan da; banketxetan irekitako kontuetan, komertzioetan jarritako kaxetan, elizan egindako bilketan, Udalak emandakoarekin eta kultur astean jarritako postuarekin 2.717.462 pezeta lortu

dira. Eskainitako laguntzari esker, uztailaren 2an iritsiko dira haur Saharar hauek herrira eta bi hilabetez egonen dira hemen. Azkenik, uztailaren 4an egingen zaien ongi etorrira azaltzeko gonbitea luzatzen dute.

Babesturiko Giza Lana

Eskualdeko Gizarte Zerbitzuak Babesturiko giza lana proiekturako monitore bat kontratatuko du. Sei hilabeteko kontratua izanen da, lanaldi erdian eta gizarte langile, hezitzaile, psikologo, pedagogo edo

gizarte egokitzapenerako teknikari tituluen jabe direnei zuzendua dago. Dokumentazioa aurkezteko azken eguna uztailaren 15a da eta azterketak, uztailaren 17an egingen dira.

Ezkondu gabe bizi diren bikoteen erregistroa sortu da

Udalbatzak Izatezko Bikoteen Erregistroa sortu du. Erregistro honetan Leitza herrian elkarrekin eta ezkondu gabe bizi diren bikote heterosexualen nahiz homosexualen sorrera nahiz deuseztapena eta

bikote hauetako kideen harreman pertsonala zein ondareari buruzko harremana arautu dezaketen kontratuak inskribatu daitezke. Erregistro honen ondorio administratiboak besterik ez ditu izanen.

Ordaindu gabeko agiriak

Udalak, 1.998 urteko ordaindu gabe dauden ordain-agiri guztiak Agente Exekutibora bidaliko ditu. Denetara 2.043.093 pta. dirakontzeptu hauengatik:

- **Kontribuzioak** 171.851 pta.
- **Lizentzi Fiskala** 503.870 pta.
- **Ura eta zaborrak** 219.160 pta.
- **Ibilgailuen gaineko zerga** 1.125.916 pta.
- **Beste batzuk** 22.296 pta.

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

ttipi-ttapa

7.100 harpidetutan
23.000 irakurle

Zure publizitatea
etxe xoko
guzietan

☎ 948 63 11 88

BAZTAN

Kirol instalazioetan hobekuntzak egiteko dirulaguntza

Balleko Udalak zenbait dirulaguntza jaso ditu Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutik, kirol instalazioetan inbertsioak egiteko erabil dezan.

Zehazki, Elizondoko udal polikiroldegiaren teilatua moldatzeko 920.000 pezetako dirulaguntza jaso da (guzira 3.672.676 pezetako aurrekontua zuen proiektuak). Elizondon berean, gimnasioa antolatzeko 725.000 pezetako dirulaguntza jaso da (2.905.292 pezetako aurrekontutik). Oronozen, azkenik, San Martin eskolako Segundo Anaia pilotalekua moldatzeko 7 milioi pezetako dirulaguntza jaso da (22.861.521 pezetako aurrekontua).

Iruritako Gizarte-Etxea egiteko dirulaguntza

Iruritako Gizarte-Etxea eraikitzeko 17.082.886 pezetako dirulaguntza eman dio Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gaztediaren Departamenduak Balleko Udalari.



Gaztanberaren Kofradiak kide berriak izendatu ditu

Pedro Migel Etxenike fisikaria, Teresa Motos Izeta hockey jokalaria eta entrenatzailea, Malkorra gozotegia eta Bodegas Iratxe enpresadira Gaztanberaren Kofradiako ohorezko kide berriak. Etxenikek Lekarozen ikasi zuen eta bere aita Iruritako Gaisteneakoa zen: «Baztanek eman dit izena, Etxenike, eta izana». Teresa Motosen ama, Micaela Izeta, Elizondokoa zen eta bere senarra, Luis Otermin, Iruritakoa da.

D.Navarra

Azpilkuetako Sanferminak uztailaren 6tik 10era

Zikiro-jatea ortziralean izanen da

Asteartea, uztailak 6 San Fermin bezpera
12etan txupinazoa. 9etan ezkil-jotzea. 9,30etan herri afaria Herriko Ostatuan, JOXE ANGEL akordeolariarekin.

Asteazkena, uztailak 7 San Fermin Egune
11tan Meza Nagusia, San Andres elizan. 12etan ha-

meketakoa Herriko Ostatuan. 5,30etan haurrendako txokolatada. 8etatik 10etara dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. 9,30etan andre edo atso afaria. 11,30etatik 3etara dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin.

Ortzirala, uztailak 9
2etan zikiro-jatea herriko

pilotalekuan, JOXE ANGEL akordeolariak alaitua. 9,30etan afaria JOXE ANGELekin.

Larunbata, uztailak 10
4etan mus txapelketa Herriko Ostatuan. 8,30etatik 10etara dantzaldia TRIKIMAILU taldearekin. 1etatik 5etara dantzaldia TRIKIMAILU taldearekin.

flash

Istripu larria Belaten

Ingalaterrako bi lagun hil ziren ekainaren 2lean Belaten, bereaien autoak kamioi batek kolpatu zuenean. Kamioiko gidaria ere larriki zauritu zen, ibilgailua errekarera erori ondotik.

Selektibitatea Lekarozko Institutuan

Lekarozko Institututik selektibitatea egitera aurkeztu diren 30 ikasleetatik 27k proba gaintitza lortu dute. D erudian, 21 ikasleetatik 19k aprobatu dute (%90,4) eta Gereudian, 9 ikasleetatik 8k (%88,8).

Dirulaguntzak Arte eta Kultura ekitaldietarako

Balleko Udalak zenbait dirulaguntza eskuratuko ditu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamendutik, Arte eta Kultura 99 egitaraua egiteko. 700.000 pezetako kultur programaziorako izanen dira, 212.928 pezetako Dramatizazio tailerrentzat eta 315.000 pezetako «Bideko Musika» proiekturako.

ARGIBEL OPTIKA
948 581 391
Santiago 62 - ELIZONDO

Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • 948 580 562 IRURITA

Ander goxekiak
Urtebetetze poltsak Piñatak...
Santiago 33 - ELIZONDO
948 452294

JATETXEA
948 580101
Santiago 1 ELIZONDO


Galarza

BAZTAN



Ikasturte akabailako besta Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean

Ekainaren 12an ospatu zuten San Francisco Javier ikastetxean ikasturte akabailako besta. Egun osoan izan zituzten gaztelu puzgarriez gain, guraso eta irakasleak, ikasle eta ikasle ohien kontra aritu ziren futbitoan. Pilota txapelketak ere jokatu ziren eta dantz emanaldiaren ondotik bazkaria izan zuten, haurrek lehenik eta gurasoek gero. Pilota txapelketa finalistei emandako sarien ondotik dantzaldia izan zen Gorramendi 10 taldearekin. Arratsean, mus eta txintxon txapelketetako sariak banatu ziren.



Perthonaia

Berrogei zentimetro luzeko baba-lekak bildu ditu Elizondoko Daniel Petrikorenak

Ezuste derrahartzuen Daniel Petrikorena elizondarrak bere baratze-
ra joan eta 40 zentimetro luze zuten baba-leka ikusgarri horiek ikusi zituenean. Normala baino de-
xente haundiagoak dira, noski. Baratzean aritze-
ko afizio handia du Danielek eta urteak da-
ramazki bere xokoa lan-
tzen, baina sekulan ez zi-
tuen honelako lekak ikusi.
Haziak, itxuraz arruntak,
Baztan Ferreterian erosi omen zituen. Non ote dago sekretua? Udaberri hezea izan delako akaso edo hazi transgenikoak Baztanera ailegatu direlako dago-
eneko? Nor dakil!



Daniel PETRIKORENA

Orabidean mantenuaren truke ari ziren atzerritarrak lanean dira berriz

Nagusia, Javier Herce, atxilotu zuten hasiera batean

TTIPI-TTAPA

Orabidean, mantenuaren truke granja-eskola bat eraikitzen ari ziren Moldaviako hamalau lagunak leku berean lanean ari dira berriro. Paperik gabe dauden atzerritar hauen

erranetan, «*honat lane-
ra etorri gara eta ez
lruñeko pensio baten
egotera*». Hasieran,
Javier Herce atxilotu zuten, hamalau lagun hauek esplotatzeagatik. Ez da lehenbiziko aldia Herce justiziarekin arazoak dituen Mar-

txoan Telefonicari ez ordaintzeagatik 100.000 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen. Urtebete lehenago, bertze enpresa batekin, mila lanpostu eskaini zituen. Nafarroako Gobernuko Komertzio eta Kontsumo Zerbitzuak

milioi erdiko isuna jarri zion, lanpostu hauek formazio ikastaroak bertzerik ez zirelako. Orabideako zenbait bizilagunek TTIPI-TTAPARA idatzitako eskutitz batean salatu dutenez, «*sekta bateko kide da Javier Herce*».



SOULE

Hileta artea

Tfnoak: 948 453444 • 908. 779903
ARIZKUN



BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK
Menditurri, 1 • ELIZONDO • ☎ 948 580373 • 608 776176

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO

SARA

Xareta aurten go eginkizunen plana aurkeztu zuen Saran

Lau herrien arteko elkarlanaren beharra azpimarkatu zen

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Ekainaren 18an, Sarako Herriko Etxean 1999. urterako Xareta eginkizun planaren aurkezpena iragan zen. Xareta elkarteak gonbidaturik, Sara, Zugarramurdi, Ainhoa eta Urdazubiko saltzaille, enpresari, ostalari eta elkarteak azaldu ziren, orotara 50 pertsona.

Lehen hitza, Aniotz-behere jaunak hartu zuen, azalduz Xareta lurraldearen zergaitia eta historia (Gerlak, kontrabandoa...), baieztatuz mugarik ez zela. Ondotik, Xareta eginkizunen zerrenda egin zuen, hala nola Sara eta Zugarramurdi lotzen duen oinezko bidea, Sarako lezeen bazterren antolatzea, Urdazubiko errotaren moldaketa, ikastaldiak...

Ondoren, orain arte

Urdazubiko auzapez zen Iribarren jaunak, espainolez itzulpena egin zuen Sarako auzapezaren frantsesko hitzeri, aipatuz elkar laguntzearen beharra, adibidez, turistak Urdazubiko lezetatik Sara eta Zugarramurdira igorritik. Azkenik, Saint Jean jaunak, Ainhoako auzapezak, banaz bertze herriko biztanleen %70 Hego Euskal Herriatik heldu dela aipatu zuen.

Hautetsien ondotik, Accea Lan Berri eta Cederna-Garalur erakundetako bi ordezkariak, Peio Belan-ek frantsesez eta Izaskun Abrik euskaraz, laneko gaiak eta hauen egutegiak zehazki azaldu zituzten. Hauen helburua bi lan talde osatzea da, bat harrera eta turismo iharduera lantzen duena; bertzeak, kirola, kultura eta ondarea.

Xareta bi lan talde osatzeko helburua dago, bat harrera eta turismo iharduera lantzen duena; bertzeak, kirola, kultura eta ondarea.

Xareta



tarako, bi zerrenda ideki ziren eta proposatu egin zen bakoitzari bere parte hartzea, ideiak ekarriz, elkarlana bultzatzeko. Xedea, urte bukaerako hautatuak izan diren ekimen proiektuen bilduma osatzea da, gero zer segida eman den erabakitzeko.

Zugarramurdiko auzapezak ez zuen elea hartzeko manerik aurkitu, berandu ailegatu zelakotz. Halere, tenerez agertu zen hiru hiz-

kuntzetan egindako Xareta eginkizun plana izenpetzeko eta

Europako hauteskundeak

Saran irabazle nagusia abstentzioa izan da, bakarrik saratarren %31,4 joan baita boza ematerat. Lapurdi eta Ipar Euskal Herriko emaitzak behatuz, parte hartze eskasenetariko izan da Sarakoa. Zerrena bozkatuena ihiztariena izan da.

flash

Sarako igerilekua

idekitzen da uztailaren letik, abuztuaren 31 rat. Aurtengo prezioa: Helduak, 12 Libera edo hamar sartze, 90 Libera. Haurrak, 7 Ledo hamar sartze, 55 L. Tenisan aritzeko aukerareizanena da uztailaren letik aitzina.

Sarako koralaren elkarretaratzea

Sarako koralak ataldi bat egin du Lourdesen. Horiek bezala, bertze kantari ainitz ziren, bai euskaldunak baita frantsesak ere. Orotara, 2000 kantari zirenetan egun hori ospatzeko 300 apez bertan ziren.

bilkura ondotik eskainitako aperitifaz gozatzeko.

Zentsoa	1.692
Botuak	532
Abstentzioa	%68
PS	52 (%10,5)
UDF	81 (%16,4)
Pasqua	44 (%8,9)
RPR	48 (%9,7)
Berdeak	62 (%12,6)
Ehiztariak	143 (%29,0)
Ezker muturra	20 (%4,0)
PCF	6 (%1,2)
FN	8 (%1,62)
MN	3 (%0,6)

OLARI

Jatetxea



Tfnoa: (948) 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua




Kutxa Kutxa Kutxa




txa Kutxa Kutxa Kutx


Kidetzatxerri bat!
 7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
 Tel. 0559203274 Fax 0559203237

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

 MAIXAN ETA VÉRONIQUE
 64310 SARA • Tél. 05 59 54 25 19

ttipi-ttapa internet

<http://www.jald.com/topagone/ttipi-ttapa>
 E-mail: ttipi-ttapa@topagone.jald.com

SENPERE



Haurren Komunioa eta karate Eskola

Ezkerreko argazkian maiatzaren 30ean lehen komunioa edo jaunartzea egin zuten neska-mutikoak ditugu. Eskuin aldekoan, berriz, Senperen sortu den karate eskola.

Argazkia: Studio de la Nivelles

flash

Haur kantu txapelketa

Bixente Bereau bigarren sailkatu da aurtengo haur Kantu txapelketan, Bizkai-ko Arrigorriagan iragan den Euskal Herri osoko finalean, 6 eta 10 urte artekoen mailan.

Bertsolari Ttiki

Jon Ollo Almandoz Zaldubi ikastolako 9. urteko urdazubiarrak lehensaria irabazi du. Bertsu idatziak presentatu ditu Donibane-Garazin, berriki izan den Bertsolari Ttiki Bestan. Ikastolako bertze haurrek ere sariak irabazi dituzte.

Hilketagatik presondegira

Hemezortzi urteko presondegi zigorra eman dio Pabeko auzitegiak Jean Antoine Dulout-i. 1995ko uztailean bere emaztea eta huren ama hil zituen tiroz lakuan duen etxean.

Auto zoingehiagoka

izan da Kantian maiatz hondarrean. Aurtengo irabazleak Bordelekoak dira. Thierry Harozarene eta Matias Galarregi herritarrek bederatzigarren sailkatu dira.

Europako bozek interes guti izan dute

Abstentzioak irabazi du nabarmen

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 13an Europar Parlamenturako bozek parte hartze ttitkia ikusi dute herrian. Hamar herritarretarik

lauk baizik ez dute bozkatu. Angeluko auzapeza den Alain Lamassoure (UDF) hautatua izan da Bruselan lanegiteko. Europako hiriburrurak euskaldunen boza

eremanen dute ere EAJ-EA koalizioko bi ordezkari, bai eta Euskal Herritarrok taldeko zerrendaburuak, Hiriburuko Koldo Gorostiagak. Izendatua izan bezain fite aitortu du Ipar Euskal Herria ere kondutan hartuko duela Bruselan egiten duen lanean, nahiz eta Hegoaldean hautatua izan.

Usoetaz erakusketa antolatu da Saint Christophe laborantza eskolak

Saint Christophe laborantza eskolako ikasleek parte hartu dute

Europako Hauteskundeak	
Zentsua	3.077
Botuak	1.250
Abstentzioa	%59,3
PS	137 (%11,7)
UDF	183 (%15,6)
Pasqua	155 (%13,2)
RPR	137 (%11,7)
Berdeak	141 (%12,0)
Ehiztariak	178 (%15,2)
Ezker muturra	68 (%5,8)
PCF	40 (%3,4)
FN	33 (%2,8)
MN	10 (%0,8)

Angeluko Chasseexpo ihizi sasoinan erakusketa bat proposatu zuen. Saint Christophe lizeoak lotura azkarrak ditu departamenduko ihizi federazioarekin eta uxoak kondatzeko behatoki berria izanen dute Saran, Urruña, Aldude eta Arnegin orain arte duten bezala.

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza

Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA

Ibardingo Lepoa • 948 631209 • BERA

Hasian hasi Gure Irratia bere Etxearen Jabe

500.000,00 libera - Gure Irratia, Zure Irratia

1066 FM

Mila urte gehiago euskaraz Iparraldean

HELBURUA 12.500.000 piza

Ikusiz Euskara guztiz behar kadan dela iparraldean, irrattia bide bakarra da gure hizkuntzaren zuzenean entzuteko egunero. Nahi baldin badugu Lapurdin euskara entzun datorren mende, premiazkoa da ditugun trasmisio tresna eskasak indartzea.

Gure Irratia : P.K. 8452 F - 64184 BAIONA

Zure emaitza : EUSKADIKO KUTXA, Paseo de Colon IRUN : 0590052667

ZUGARRAMURDI

Elkar entzuteko ikastaroa asteburu huntan

Akelarre gaupasan jendez gaindizka egin zuen herriak

TTIPI-TTAPA

Joan den azaroan egin zen bezala, uztailaren 3 eta 4ko asteburuan elkar-entzuketako ikastaroa antolatu da herriko eskoletan. Ikastaroak 6.000 pezeta gostatuko du eta izena emateko telefono hauekara deitu: Saran, 948 177521 (Aline) eta Zugarramurdi, 948 599226 (Iñaki).

Estutasuneko esperientzietaz askatzeko mekanismoak ezagutzeko eta erabiltzeko tresna dugu elkar-entzuketara.

Akelarre gaupasa jendetsua

Bertze urte batez ere, akelarreko gaupasa egin

dela berri ematen dugu. Urte honetan San Juan besta ospatzen duten herriekin batera ez zelako edo, aintzineko urteetan bainan aise jende gehiago bildu da. Hori dela eta lezea jendez gaindizka zegoen eta antzerkia murriztu egin behar izan zen; jolaldunak ere nahiko arazo izan zituzten jendearen tartean ibiltzeko eta itzuli bat eman ondotik herrira igan ziren. Hori dena ez zen oztopo izan bai lezean bai karriketaren sekulako giroaz gozatu ahal izateko.

Ikasturte akabailako besta eskoletan

Uda ailegatu eta haurren bakantzak dena bat



Haurrak dantzan eta jostetan ibili ziren ikasturte akabailan.

direla eta ekainaren 22an ikasturte akabailako besta ospatu zuten Urdazubi-Zugarramurdi eskoletako haurrek. Urtero herriz txandatu zegoen denez, aurtengoan Zugarramurdiko eskoletan egin da eta bertan 39 haur elkartu ziren «Kiki eta Moko» pailasoak ikusi eta haiekin dantzatu eta jostatzeko. Gero elkarrekin bazkari goxo bat egin ondoren ikasturtea akabatutzat eman zuten.



Jende aunitz sartu zen lezean, Akelarre-gaupasan. Antzerkia egiteko lekua murriztu egin behar izan zen, baina, halere, ikusgarria izan zen.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berrirezka eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

Kulturkari

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzue!

☎ 948631188

EZKONTZAK

Oskar Padura Unanue eta M^a Arantzu Etxandi Juanikotena, Donostia eta Arraiozkoa, ekainaren 4an.
 Manuel Elgorriaga Guillen eta M^a Jose Etxenike Larrañaga, Bera eta Erratzukoa, maiatzaren 29an.
 Carlos Aleman Oiaregi eta Itziar Azkarraga Iribarren, Irurita eta Azpilkuetakoa, ekainaren 19an.
 Juan Luis Iparrea Etxenike eta M^a Angeles Rekarte Rekarte, Irurita eta Erratzukoa, ekainaren 19an.
 Vicente Iriarte Najera eta Edurne Sarratea Opoka, Betelu eta Leitzakoa, ekainaren 12an.
 Jose Joaquin Artola Arraiago eta M^a Lorenza Alduntzin Sestorain, Areso eta Leitzakoa, ekainaren 19an.
 Alejandro San Migel Altugarai eta Ana Isabel Gragirena Saldias, Doneztebe eta Urrozkoa, ekainaren 19an.
 Miguel Angel Etxegarai Mikelperezina eta M^a Jose Elgorriaga Garbisu, Bera eta Lesakakoa, ekainaren 12an.
 Javier Maria Telletxea Bertizeta Maria Montserrat Gutierrez Cancela, Bera eta Eibarkoa, ekainaren 19an.

JAIOTZAK

Ander Alduntzin Ibañez, Leitzakoa, ekainaren 17an.
 Maitena Gorosurreta, Sarakoa, ekainaren 5ean.
 Ibai Apeztegia Etxebeste, Sunbillakoa, ekainaren 19an.
 Olatz Mitxelena Sagastibeltza, Berakoa, ekainaren 4an.
 Matixa Uria Moncalvillo, Berakoa, ekainaren 13an.

HERIOTZAK

Lucio Etxarte Kortea, Elizondokoa, ekainaren 9an, 84 urte.
 Jose Miguel Zabaleta Lizarraga, Leitzakoa, ekainaren 8an, 89 urte.
 Micaela Sagastibeltza Zabaleta, Leitzakoa, ekainaren 15ean, 87 urte.
 Marcelino Mindegia Iñigo, Iturengoa, ekainaren 18an, 88 urte.
 Jose M^a Iriarte Iriarte, Zugarramurdikoa, ekainaren 9an, 92 urte.
 Candido Telletxea Etxebeste, Berakoa, ekainaren 21ean, 83 urte.
 Jose Dorremotz Sarratea, Berakoa, ekainaren 4an, 69 urte.
 Claudia Garcia de Andoain Auza, Beran, ekainaren 13an, 80 urte.

ZORIONAK!

Oparia ematen
 lehenak
 izan nahi
 dugu



Haurtxoa sortu eta etarri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurren garbitasunerako produktuekin bete, ematen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA



Eskelak

enkargatzeko

deitu

948 63 11 88

telefonora


FUNERARIA ZERBITZUAK

Lesaka-Donoztebe



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
 edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



Blas GOIZUETA SARRATEA

1. urteurrena (VI-25)

*Gehiago ikusiko
 ez zaitugun arren
 beti bihotzean
 eramango zaitugu.*

ZURE FAMILIA



BAZTAN

ALTZARIAK
 zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

DATUAK.....

- 1 Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari emandako Urrezko Domina jaso berri du Iñaki Perurena harrijasotzaile leitzarrek.
- 2 42 urte beteak ditu eta hiru seme-alaben aita da: Maite, Inaxio eta Xabier.
- 3 Erdikoak aitaren bidea segitu du eta marka haundiak egin ditu dagoeneko.
- 4 Belaunaldi berrientzako 'Goenkale'ko Imanol ezagunagoa da Iñaki harrijasotzailea baino: «Oso gustora nabil. Aktorea naizela esateak lotsa pixko bat ematen dit, aktore lana egiten ari naiz eta ikasi nahiean».

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
JOSEBA AZPIROZ

➔ **Iñaki PERURENA** Leitzako harrijasotzailea

“Errekorrak lanaren ondorio direla erakutsi nahi nioke semeari”

«Kirolari bat kirola egiten ari denean ez da sari baten bila aritzen. Ilusioa egin dit nitaz oroitzea, baina batez ere, Nafarroan herri kirolabadaukagula, bizirik dagoela eta euskal kultura ere badela kirolaz gain, hori erakutsi behar dugu. Denon artean bizirik mantendu behar dugu. Herri kirola kontuan edukitzeko izan dadila sari hori». Honela mintzo da Iñaki Perurena, Nafarroako Gobernuak emandako Dominaz hitz egiterakoan. Leitzarra ez da, berez, soberasari zalea. «Niretzat sari politena herri batera joan, harria jaso eta norbaitek, 'joño, oraindik nahiko ongi hago!' esatea da. Nire ilusioa izanzen litzateke harria jasoz zahartzea. Nire sasoi puntako hurapasatu zen, baina oraindik ere 250 kilo-koari jasoaldia ematen diot erakustaldi bakoitzean. Joan den urtean gerrietatik juxtu ibili nintzen eta kezkatua ere bai lesio seriorik ba ote nuen, baina konturatu naiz beroketak, arieketak eta estiramenduak ongi eginez, oraindik ere nahiko kurioso nabilela».

SEMEAREKIN BATERA ERAKUSTALDIETAN

Aita-semeak gazte hasiak dira herri kirolean, baina biek izanda-

» **“Marka asko egiten saiatu naiz: bi eskuekin, bakarrarekin, borobila, kubikoa... Nire errekorrik onena harri guztiekin saiatzea dela esaten dut”**



«Gorpuzkera eta nik eman nezazkeen aholkuak baditu semeak. Mahaiaren irugarren oina berak jarri behar du, bere lana»

ko hasierak ez dute zerikusirik: «Ni hasi nintzanean hanka hutsik ibiltzen ziren harrijasotzaileak eta entrenamenduak ere neronek prestatu nituen, halterofilia liburuak ikusiz. Nik egin nituen hanka sartzeak Inaxiok ez egitea saiatzen ari naiz». Semeak, gainera, Iñakik berak izan ez zuen laguntza izanzen du etxe-

an. «Etxean aizkoran aritzea bai, baina harria ez zuten ikusi nahi ere. 14-15 urterekin harria jaso nahi nuen baina ez nuen haririk. Lehendabiziko harriak neronek landu nituen mendian, ixilean».

Aitaren eta, aldi berean, entrenatzailearen harrotasuna nabari zaio Iñakiri semeaz hitz egiterakoan. «Markak hor daude, harrijasotzaile haundi baten markak dira. Gainera, kontuan hartu behar da bere gorakoa 1,90koa dela eta harri jasotzen dabilen

inork ez du horrelako alturarik. Orduan harriak ere nahiko motxak gelditzen ari zaizkio». Honek aldaketa eskatzen du araudian, Iñaki Perurenaren ustez. «Lehenengo harriek 24 ontza zituzten, orain 30 dituzte, baina halere, txiki gelditzen zaizkio. Araudiari begiratu bat eman eta aldaketa egin beharkoda. Harriak jasotzailearen neurrikoa behar du eta orduan, Inaxioak altuagoak beharko ditu. Hori egiten hasten denean oraindik hobekiago jasoko ditu».

Baztan futbol taldea Hirugarren Mailara itzuli da

Baztan futbol taldeak Preferentetik Hirugarren mailara igaita eta duela bi urte galdutako maila berreskuratzeari lotu du. Ligan bigarrena izan ziren baztandarrak, Idoya taldearen gibeletik. Honela, promozioa Errioxako Preferenteko bigarren izan zen Agoncilloren kontra jokatzea egokitu zitzaion. Joaneko partiduan bana berdindu zuten Errioxan eta itzulerakoan, ekainaren 13an Giltxaurdin, 4 eta 0 irabazi zuen Baztanek. Halere, emaitzak erakusten duena baino zailagoa suertatu zen partidua, Esteban Ustariz lehendakariak gogoratzen duenez. «Lehendabiziko zatian ongi aritu ginen, indarrez eta 2-0 irabazten jarri gara, baina epaileak Barberena kanporatu duenean zaildu da kontua. Eurek gola sartuz gero, urduri jartzeko arriskua genuen, baina kontraerasoan hirugarrena sartu eta helburua lortu dugu».

Heldu den denboraldian taldean segituko duen Pedro Barandalla entrenatzailea ere pozez xoratzen zegoen. «Orain arte, jaten eta edaten Europako txapelak ginen, baina Agoncilloren kontra Baztan talde haundia dela ikusi da».

Baztanek hirugarren aldian izan den Hirugarren mailan. Orainhar arte urte igo zen lehen aldiz, baina urte bat bertzerik ez zen egon. 1992-93 denboraldian itzuli zen kategoriara, Preferenteko txapelak izan ondotik eta lau urtez mantenduz, 1996-97 denboraldian jautsi zen arte.



Errioxako Agoncillori 4-0 irabazi ondotik, Baztan taldea garaipena ospatzen.

Argazkia: Mena

Jokalaria	Postua	Jaiotze E.	Herria
Guillermo Santos Carballo	Atezaina	72-01-14	Elizondo
Iñigo Arregi Jaurena	Atezaina	78-11-22	Elizondo
Aitor Azkarate Tomassone	Atzelaria	76-01-17	Aniz
Jose Martin Legarrea Torres	Atzelaria	80-09-23	Elizondo
Juan Jose Iturzaeta Barno	Atzelaria	71-04-19	Elizondo
Txema Garaikoetxea Iturriria	Atzelaria	68-04-25	Lekaroz
Juan Jose Mitxelena Goñi	Atzelaria	73-02-13	Elbetza
Jose Etxeberria Iturbide	Erdilaria	81-11-21	Arizkun
Xabier Iparragirre Mihura	Erdilaria	73-02-04	Elizondo
Alberto Barberena Goñi	Erdilaria	78-02-25	Elizondo
Juan Carlos Galarregi Iturriria	Erdilaria	70-10-19	Elizondo
Fermin Iriberrri Eizagirre	Erdilaria	69-10-17	Elizondo
Fernando Arraztoa Larregi	Erdilaria	68-05-29	Gartzain
Haritz Gaztelu Garde	Erdilaria	78-03-28	Elizondo
Igor Plaza Azkarate	Erdilaria	78-07-18	Lekaroz
Pello Urrutia Barberena	Erdilaria	82-04-19	Irurita
Peio Apezetxea Larrainzar	Erdilaria	68-05-27	Erratzu
Josema Osakar Iturriria	Aurrelaria	77-06-16	Elizondo
Dani Etxeberria Iturbide	Aurrelaria	76-05-29	Arizkun
Mikel Garbalena Goñi	Aurrelaria	71-12-27	Arizkun
Asier Hernandezena Lizaso	Aurrelaria	78-05-25	Legasa
Jordi Gual Zaldain	Aurrelaria	79-05-08	Elizondo

Entrenatzailea: Pedro Barandalla Sanz

Xabier IPARRAGIRRE «Urruska» Taldeko kapitaina

«Heldu den urtean, lehenbizi maila mantendu eta gero, ikusiko dugu zer egiten ahal dugun»

Mailaz igaiteko helburuarekin hasi zenuten denboraldia?

Beti goiti begira hasten zara, denboraldi polita egiteko asmoarekin. Ikusi genuen ez zela talde indartsuegirik eta igaiteko modua bazela.

Nola definituko zenuke taldea?

Talde betetera, hogeita hamar bat urteko lau jokalarirekin, baina, aldi

berean, jende gaztea sartzen ari da. Aitzinaldean ez dugu indar sobera, baina gibeletik hasi eta aitzinerat jotzen dugu, edonork sartzen ditu golan talde honetan.

Eta heldu den urtean, zer?

Jendeak segitzeko intentzioa du. Lehenik maila mantendu eta gero, ikusiko dugu zer egiten ahal dugun.

Klubaren datuak



Elkartearen izena:

Baztan F.T.

Sorrera: 1923

Bazkideak: 430

Helbidea:

47 P.K.

31700 ELIZONDO

Tel.: 948 453017 (Rafa)

Aurrekontua:

12 milioi pezeta inguru

Futbol zelaia:

Giltxaurdi.

Lehendakaria:

Esteban Ustariz

Lehendakariordea:

Pedro Torralba

Diruzaina:

Rafael Olaizola

Idazkaria:

Juan Mari Ondikol

Bokalak: Antonio Verde eta Francisco Bidart

Sekzioak:

Futbola (Preferente, jubenetik, kadeteak).

Helduak

Maila: Preferentetik Hirugarren Mailara

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

AZPILKUETA

► **Uztailaren 3tik 7ra**
San Fermin bestak.

LESAKA

► **Uztailaren 6tik 11ra** San Fermin bestak.

ERAKUSKETAK

BERA

► Uztailaren 2tik

17ra Maria Jesus Petri korenaren koadroak ikusgai Kultur Etxean. Goizeko 10etatik 13etara eta arratsaldeko 18etatik 20,30etara.

IKASTAROAK

BERA

► Uztailaren 14tik

16rat Antzerki ikastaroak eginen ditu Lamixine Antzerki Taldeak, baina bi adin taldeetan banatuta. Batetik, gazteentzako tailer bat eta bertzetik hirugarren adinakoentzako bertze bat. Apuntatzeko lami-xineko bakarren batekin harremanetan jarri edo 948 631 222 telefonora deitu.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tf.ora. deitu behar da

► Ekainaren 28tik

uztailaren 4ra Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► Uztailaren 5etik

11ra Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), eta Goizueta.

► Uztailaren 12tik

18ra Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), eta Goizueta.

TELEBISTAKO TXOKOA

BASERRIA

ORDUTEGI BERRIA

ttiipi-ttapa



Egunero 11:00, 13:00, 17:00 eta 21:00etan

Jakinen duzuen bezala, TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN lehen-dabiziko urteurrena bete zen ekainaren 15ean. Honekin batera etapa berri bat ideki da herri telebista honen bilakaeran. Orain arte egunean bi emisio egiten bagenituen, hemendik aitzinera bertze bitan ikusi ahal izanen da egunero programazioa: goiz erdian eta arratsaldeko bortzetan. Horrela, espero dugu jende gehiagok izanen duela programak ikusteko aukera.

Bertzalde, orotarazi Doneztebeko bestetako programa berexien ondotik Lesakako San Ferminen txanda heldu dela, eta han ere ez dugula hutsik eginen.

Akautzeko, berriz aipatu nahi dugu telebistarako aurkezle eta berriemaileen bila gabiltzala. Animatu!



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.800 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 178 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 90/95 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra530
1.koa500
2.koa470
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra540
1.koa520
2.koa480
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttiikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 28.000 eta idixkoak 40.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behigorriena: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Ipuin euskaldunak»

Iban Zaldua

Euskaldunei buruzko hainbat ipuin idatzi ditu Iban Zalduak liburu honetan. Gertaera xelebreak eta tipikoak dira gehienbat bilduma honetan aurki daitezkeenak:

“Zergatik gorrotatzen dituzte Donostiarrek Bilbotarrak?” ipuina, adibidez, gai tipikoa da, baina autoreak arrazonamendu harrigarria egiten du galdera horri erantzuteko.

Bertze ipuin batean, “Ikastola-

rena”, ETAKoa den andereñoa salatu egiten du haur batek. Bertze batean ileapaindegi batean kokatutako ipuina kontatzen digu egileak, eta ligatu ezinean dabilen ikasle baten ibilerak ere aipatzen dira tartean.

Euskaldunek geure buruari irri egiteko ohitura gutti dugula diote, baina hona hemen Iban Zalduaren ipuin entsalada hau, modu zirikatzailean idatzitako ipuin ironikoz osatua.

JAKIN BEHARREKOAK

'Jabetza horizontaleko legea'

Pisuetan bizi den jendea arras nahastuta dabil azken boladan. Denok entzun eta irakurri dugu pisuetako etxeen gorabeherak arautzen dituen Legea berriki aldatu dutela.

Aitzineko Legea egungo arazoak bideratzeko antzua zela ikusita, hiru helburu dituen «Jabetza horizontaleko legea» delakoa plazaratu dute maiatzean. Ikas dezagun gutti goiti beheiti zer dioen lege berriak:

Honen arabera, jabe guziek nahitanahiez parte hartu behar dutela etxea mantentzeko beharrezkoak diren gastuetan. Lehen bezala etxearen «titulu osagarria» delakoa aldatzeko eta amankomuneko guneetan obrak egiteko jabe guzien baimena beharko dugu orain ere. Hala ere, Lege berriak kasu berezi batzuk aipatzen ditu: interes orokorreko zerbitzuak, elbarriadako mugak kentzeko egiten diren obrak eta amankomuneko zerbitzuenak, hain zuzen.

Honela, interes orokorreko zerbitzuak paratu edo aldatzeko, igogailua adibidez, borts nagusitik hiruren aldeko botoa beharko dugu; elbarriadako obrak egiteko jabe



Pisuetako bizilagunen arteko elkarbizitza arautzen duen legea berriki egin dute maiatzean.

gehienak alde azaltzea eta amankomuneko zerbitzuak, gasa, antena parabolika, etabar... errate baterako, hiru nagusitik baten aldeko botoa. Lehenbiziko bi kasutan gainera, akordioaren aldekoek eta aurkakoei ordaindu beharko dute nahitanahiez.

Gainerako erabakiak har-

Komunitatearekin zorrak dituenak ezin izanen du ez batzarretan bozkatu ez erabakiak errekurritu.

tzeko gehiengoaren aldeko botoa behar da, baino bakoitzari egokitzen zaiona 3 hileko komunitate kuota baino gehiagobaldin bada aurkakoei ez dute ordaindu behar.

Bertzalde, komunitatearekin zorrak dituenak ezin izanen du ez batzarretan bozkatu ez erabakiak errekurritu. Horretaz gain, epaitegietara jotzeko bidea erraztu da poliki, edozein diru kopuru erreklamatzeko abokaturik eta prokuradorerik ez delako behar. Gainera, komunitateak alde zurreko enbargoa eskatzen ahal dio epaileari eta zordunak epaia errekurritu ahal izateko duen zorra ordaindu beharko du lehenik.

IRATXE KONTSUM. ELK.

AGENDA EGUNEZ EGUN

MINTZALDIAK

ELIZONDO

► Uztailaren 1ean

Pertsona zaharren elikadurari buruzko solasaldia eman du Amaia Meoki Plazak Arizkunean. 18tan.

BAZKARIAK

SENPERE

► Uztailaren 11n

Kantu Bazkaria egiten da Oxtikenea elkartearen. Apuntatzeko elkarte bertan eman behar da izena.

TRIKITIXA

LESAKA

► Uztailaren 11n

Baztan-Malerreka-Bortzirietako II Trikitixa Txapelketa jokatu da Plaza Zaharrean, arratsaldeko 7etan.

KIROLA

LESAKA

► Uztailaren 3an

3etatik 8etara; Saskibaloitxapelketa, 3x3, Irain Eskolan. 5etan; Sokatira, Euskal Herriko Lur Gaineko Txapelketa, Varez poligonoko zelaian. 5etan; 13. Marino Lejarreta Txirrindularitza Saria, kadeteak.

7.8etan; Emakumezko pala goma txapelketa eta Gizonezko pala motza txapelketen finalak. Pilotalekuan.

KONTZERTUAK

ARROSA

► Uztailaren 2tik 4ra

Euskal Herria Zuzenean kontzertu jaialdi erraldoia. Euskal Herriko eta kanpoko hainbat taldek joko dute.

DISKAK



«Inshala»

ALAITZ ETA MAIDER

TRIKI

Udaberrian beraien bigarren diskoa ateri dute Alaitz eta Maider gipuzkoarrek. Oraindik gazteak izan arren, hamarkada bat pasatu da trikia eta panderoa hartu eta plazara jalgi zirenetik. Geroztik maketa pare bat ere grabatu dute 1991 eta 1995. urteetan. Ondoren, duela bi urte, «Alaitz eta Maider» izeneko diska karrikatu zuten, eta lan hura izan zen Euskal Herri guzian ezagun egin zituena. Mai-

xa ta Ixiar taldearekin batera, gaur egun Euskal Herrian aski zabaldua den formula musikaren aintzindari izan zirela erran daiteke; trikitixa, panderoa + baxua, gitarra eta baterria formula, alegia. Lehen diskoarekin alderatuz soinu hobea eta nortasun gehiago dituela nabaria da. Hitzak egiteko Andoni Egaña eta Maialen Lujanbioren laguntza izan dute, bertzeak bertze.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. *ttipi-ttapa* telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezeta Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea *ttipi-ttapa* iragarkiaren iragarkia faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuak berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

IRURITA.
- Lur eremu eraikigarria salgai.
☎ 948 451 841

GOIKO SL

LEITZA. Pisua salgai Manuel Esarte kalean. 3 logela, sala, komuna, sukalde berria. Oso eguzkitsua. 11 milioi.
☎ 649 476 615 • 948 510 346

ORONAZ-MUGAIRE. Pisua salgai. Moblezatua. ☎ 948 306 598.

ELGORRIAGA. Pisua salgai. 100 m²koa + 31 m²ko ganbara. Kalefakzioa eta guztiz hornitutako sukalde. ☎ 948 450 786 (gaueko 8,30etatik aurrera).

IRURITA. 90 m²ko pisua salgai. 15 m²ko ganbara eta 26 m²ko garagea eta kalefakzioa. Dena kanpoalde. ☎ 948 452 154 (arratseko 8etatik goiti).

ELIZONDO. Pisua salgai. 3 gela, bainua, egongela, sukalde, kalefakzioa. Moblezatua eta arras egoera onean. ☎ 948 451 753 (gaueko 8etatik 10etara).

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841

BERA edo inguruan etxebizitza baje aduna erosi nahi nuke. ☎ 948 625 000 (Gerardo).

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BENIDORM. Apartamentua errentan emateko, Levante hondartzan. Ekaina eta uztailan. ☎ 943 626 622.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

IGANTZI edo **LESAKA** aldean errentan hartuko genuke etxe bat. ☎ 948 634 000 (gaueko 9ak aldera).

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

ARESO. Pabiloia salgai, prezio onean. ☎ 948 510 346.

LANA

301 ESKARIAK

Ezkontza elizkizunetan kantatzen dut (Ave Maria, Panis Angelicus, e.a.) ☎ 948 610 697 (Maite) Gaez deitu.

Aulkiak konpontzen dira Malerrekan. ☎ 948 592 136.

Lan eginen nuke udan. ☎ 948 615 035.

Neska batek lan eginen luke arratsaldetan, Doneztebe eta Elizondo inguruan. ☎ 948 450 526 (gaueko 9etatik goiti).

Bi neska eskaintzen dira haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Interna moduan edo egunero joan-etorria eginez. Bortzirriak, Irun, Malerreka edo Iruñea aldean. ☎ 948 450 670 (utzi mezua).

Neska batek lan eginen luke etxeko lanetan edo umeak zaintzen. ☎ 948 450 928.

LANA

302 ESKAINTZAK

KULTURKARI

Lan eskaintza

ZUZENDARI KOMERTZIALA BEHAR DA

Baloratuko da:

- Eskualdea ezagutzea.
- Salmentan esperientzia.
- Antolaketa kapazitatea.
- Marketing eta enpresa administrazioan ezagutza.
- Autoa izatea.

Bidali Curriculumak lehenbailehen helbide honetara:

KULTURKARI
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA

Taxi plaza traspasatzen da Beran. ☎ 948 630 629.

Pertsona arduratsua eta esperientziaduna behar da ostatuan sukalde eta barran lan egiteko. Ekaina, uztaila eta abuztu erdia. ☎ 948 631 428.

Esperientziadun sukaldaria behar dugu. ☎ 948 627 509.

Donostian etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu interna moduan. ☎ 943 428 750 (Begoña, arratsko 8etatik 10etara).

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

R-11 salgai, diesela eta metalizatua. Oso egoera onean. Interesatuak deitu ☎ 948 581 044.

Renault Express salgai. NA-AJ egoera onean. ☎ 948 631 330.

Opel Corsa GSI gorria salgai, NA-AF, egoera onean. Hagitz ongi zaindua. ☎ 948 453 194.

R-5 Turbo salgai. NA-W. ☎ 948 634 079.

Ford Fiesta SS-AB salgai. Ongi dago. ☎ 948 631 342.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Corsa GSI, Renault 19 Diesel, Clio Diesel, Nissan Patrol 6 zilindro. Suzukiak: Vitara eta Samurai aukeran.

GANIX
Tailerrak

Iruñeandata, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

BERABI tailerrak
 © 948 631 445-BERA
 Nissan Vanette C-5, Ibiza D, Mercedes 190, Nissan Primera 2.000 SLX, Terrano I (5 urte).
 KOTXE BERRIAK

BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
 AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 ☎ 948 63 06 23 • BERA

ANIMALIAK
601 OPARI EMATEKO
 Husky zakur emea, 3 urtekoa, emateko dut. Senperen. ☎ (0033)559541285.

ANIMALIAK
602 SALEROSKETAK
 Basurde ehiziko zakurkumeak salgai, bi hilabete-koak. ☎ 948 631 390.

Bi urteko pony arra aldutuko nuke bertze pony eme edo ar batengatik. ☎ 943 621 424.

Behi gorria, lehendabiziko ernaldikoa, salgai bere txekorrarekin (idixkoa). ☎ 948 610 751.

DENETARIK
701 GALDU/AURKITUAK
 Apirilaren 5ean artzain zakur bat faltatu da Biriaturtik: arra, xuria, buztanik gabea eta lau urte terdikoa. Lagun izena du. Norbaitek bildua balitz, otoiztua da deitzera: ☎ 05 59 20 61 84 (Pierre).

Margo edo koadro bat agertu da Legia karrikan. ☎ 948630487 edo 948631117.

Toki Onako parkean patin batzuk aurkitu dira beren boltsa barruan, ekainaren 16an. Institutuan daude ☎ 948 625 000.

DENETARIK
702 SALEROSKETAK

Bi kalentadore ttiki (5 litrokoak) salgai. Berriak, gutti erabiliak. ☎ 948630885 (goizetan).

Kanpindenda-erremolkeak salgai. Oso egoera onean. ☎ 948 610 927.

Enpakadora salgai. Battle Super 162 M. ☎ 948 599 159.

Bigarren eskuko amasadora behar dugu. ☎ 948 634 039 (gaueko 9etatik aurrera).

HARREMANAK
801 AGURRAK

Itziar Ortuosteri: zorionak neba-ahizparen partetik. Badakizu maite zaitugula baina pastelak non daude?

Arraiozko Ane Oteizari: zorionak ekainaren 20an urteak bete dituelako. Segi beti bezain alai. Koadrilarren partetik.

Elizondoko Zuhaitz Azurmendi Gaztelumendiri: zorion bero-bero bat eta aitona eta amonaren partetik 10 muxu haundi.

Berroetako Nekane M.ri: Eskutan izango ez dudan altxor bat zara, baina lagunak izatea ez da gutxi! Aupa morena! I. (Bortziria).

KULTURKARI
Inprenta lanak

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

☎ 948 63 11 88

Gazteen Moda
JOPLIN
 Zure gustuko markak
-%30
 Juan Arana, 10 • IRUN
 ☎ 943 61 58 48

OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK

MEBLES AMETS
 mobleak orokorrean

Bidasoa, 45-60
 BERA
 Tfnoa: 948 630 537

LIKIDAZIOA
 ERAKUSTOKI
 ALDAKETAGATIK

OFERTAK

DENA SALGAI

LASTER ALKAIAGAKO INDUSTRIALDE BERRIAN

OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK • OFERTAK



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:

Ar azki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Ar azkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Begoña Pika-beak maiztaren 1 Sean urteak bete ditu. Oraingoan, pelukera ofiziala zarezare, larunbateko afaria zure kontura, ez?



Eugenia Lasaga Zaldiana igantziarrak ekainaren 18an 87 urte bete ditu. Zorionak zure biloba Fermin eta Ainara-ren partetik.



Iratxe Zela-etak 20 urte beteko ditu uztailaren 9an. Zorionak anaia Unai, eta Isma, Diego, Nuria, Ainhoa eta Marta lagunen partetik.



Arkaitz Retegi Zamoranok 6 urte beteko ditu uztailaren 13an. Zorionak Ibai eta gurasoen partetik.



Jon Irazoki Zelaieta beratarrak ekainaren 26an 10 urte bete ditu. Zorionak familiarren partetik. Uda ona pasa!



Imanol Lukanbio Larretxea arantzarrak 12 urte bete ditu ekainaren 18an. Zorionak eta aunitz urtez familiarren partetik.



Rocio Palacin Barroso 6 urte egin ditu ekainaren 21 ean. Zorionak ahizpa Lidia, guraso, aitaxi-amaxi, lehengusu eta osaben partetik.



Kemen Mauleon Salazarek 19 urte beteko ditu uztailaren 10ean. Zorionak familiarren partetik.



Ignacio Telletxea arriaoztarrak urteak bete ditu ekainaren 14an. Zorionak bere emaztea eta seme-alaben partetik.



Iratxe Mike-larena Bengo-etxea beratarrak urtea egin du uztailaren 6an. Zorionak atxa, ama eta Maddalenen partetik. Muxu bat.



Xabier eta Manex Erdozain urdazubiarrek ekainaren 30ean eta 20an bete dituzte 6 eta urte bat. Zorionak familiarren partetik.



Imanol eta Lorea Iribarren Jaurena urdazubiarrei beren lehendabiziko urtebetetzean zorionak bere aita eta amaren partetik.



Imanol eta Lorea Iribarren Jaurena urdazubiarrek urteak bete dituzte ekainaren 23an. Zorionak Amaia, losu eta Enekoen partetik.



Isabel Etxebeeste lesakarrak uztailaren 3an 10 urte beteko ditu. Zorionak zure familiarren partetik.



Lorentxo Apezetxea arantzarrak urteak beteko ditu uztailaren 4an. Zorionak familiarren partetik.



Emma Bertiz Ayusok 5 urte bete ditu ekainaren 28an. Zorionak! Aita, ama eta Uxoaren partetik.



Leire Pacheco Dozagarat elbetearrak 5 urte bete ditu ekainaren 12an. Zorionak Aitor eta Javieren partetik.



Amaia Apezetxea arantzarrak ekainaren 16an urteak bete dituela eta, zorionak familia guztiaren partetik. Ongi pasa!



Zorionak Felix Apezetxeari, ekainaren 21 ean urteak bete dituelako. Aunitz urtez familiarren partetik.



Zizurko Antonn eta NARBARTOKO Pili uztailaren 3an ezkonduko dira. Zorionak Leizako lagunen partetik.



Goretti Iribarren Saldias doneztebarrak uztailaren 18an urteak beteko ditu. Zorionak Berako familiarren partetik.



Jose Manuel Goñi oiztarrak ekainaren 26an bete ditu urteak. Zorionak familiarren partetik eta berexiki Imanolen partetik.



Urozko Mikel Zozia Ursuegik urtea bete du ekainaren 24an. Muxu handi bat pottoko, aita, ama eta anaia Andoniren partetik.



Xabier Zubiri Irigoien lesakarrak 5 urte bereko ditu uztailaren 5ean. Zorionak Nahia, Andoni, guraso eta amatxiren partetik.



Itsaso Tapia Alzuguren alkaigarrak 10 urte beteko ditu uztailaren 5ean. Zorionak bere familiarren partetik.



Alvaro Arratibel arantzarrak 2 urte bete ditu uztailaren 1ean. Aunitz urtez aita eta amaren partetik. 2 muxu.



Iker Puiadena Errandonea beratarrak 10 urte bete ditu ekainaren 24an. Zorionak familiarren partetik.



Pedro Irigoien Iraolari zorionak ekainaren 29an, San Pedro egunean. Zorionak emaztea eta bi semeen partetik.



Nerea Minda-gia Eieta doneztebarrak uztailaren 2an beteko ditu 8 urte. Zorionak aita, ama eta Mainerren partetik.



Naia Leiza Alduntzin leiztarrak 8 urte bete ditu ekainaren 29an. Zorionak eta muxu handi bat familiarren partetik.



Emilio Zabala Ezkurra doneztebarrak uztailaren 6an 5 urte beteko ditu. Zorionak Elena eta gurasoen partetik.



Beñat Garaiar Arak 5 urte beteko ditu uztailaren 5ean. Muxu handi bat atxa, ama eta Iratiren partetik.

Norbait zoriondu nahi baduzu bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTIPI-TTAPAKO helbidera.


San Fermin zoriontsuak opa dizkizuegu





LESAKAKO UDALAK

*Besta zoriontsuak
opa dizkizue
lesakar eta bisitari guziei*



*1999ko
San Ferminak*